

PALESTINAKO GENEALOGIA FEMINISTA II:

“EREDU DIREN EMAKUMEAK”



erkidego batzordea
unrwa
euskadi



OSASPENERAKO
LANDETTAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Testuen egileak: Duha Hmeidan, Haneen Harara, Amjad Shabat, Fayrouz Elias Salim Shehadeh eta UNRWA Euskadi

Argazkiak: Wisam Jaafari, Mohammad Nofal, Michael Bhar, Ahmad Abu Kmail eta UNRWA

Koordinazioa eta edizioa: UNRWA Euskadi

Diseinua eta maketazioa: Binari Comunicación

Lege-gordailua: M-30393-2022

ISBNa: 978-48-09-45738-0

Bilbo, 2022ko abendua

www.unrwaeuskadi.org



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

Palestinako
errefuxiatuekin

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantza-laguntza jaso du argitalpen honek.



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Argitalpen honetako azterketak eta iritziek ez dute nahitaez adierazten ez UNRWA Euskadiren ez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarrera.



creative
commons



Aitortza ez-komertziala, obra eratorririk gabea (CC BY-NC-ND 4.0)

Creative Commons baimen baten pean dago agiri hau. Materiala edozein bitartekotan edo formatutan askatasunez partekatu, kopiatu eta birbana daiteke, betiere egilearen izena aipatzen bada. Ezin da materiala helburu komertzialekin erabili. Materiala berriro nahasi, eraldatu edo hartan oinarrituta beste bat sortzen bada, ezin izango da zabaldu. Ezin da legeko terminorik edo neurri teknologikorik ezarri, lizentziak baimentzen duena egitea legez mugatzen duenik.

Baimen osoa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES.

ESKER ONAK

Mila esker argitalpen honetako bizitza-historien protagonista ditugun denei: Abeer Al Butmeh, Shatah Alazzeah, Bisan Al Mabhuh, Fatheya Saleh, Irada Zaneen, Aya Al-Abbasi, Bayan Sawalma, Monaleeza Ismail Yassin Al-Masri, Sabha Alnabahein, Bayan Sawalma, Wafaa Khater, Fatima Katash, Menwa Rayan, Naima Nael Sharakah, Abeer Jibril, Dima Kurraz eta Shireen Hasannen, euren denbora, abegitasuna eta go-goetak gurekin partekatzeagatik eta beren lekukotasunen bidez Palestinako emakumeen ahotsa izateagatik.

Eskerrik asko Zisjordanian eta Gazako zerrendan kazetari jarduten direnei ere: Duha Hmeidan, Haneen Harara, Amjad Shabat eta Fayrouz Elias Salim Shehad, eredu diren emakume horien bizitza-historiak hain samurki azaltzeagatik.

Eskerrik asko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari ere, argitalpen hau egiteko emandako laguntza solidario eta ekonomikoari esker, gizartea eraldatzeko hezkuntza-proiektuak garatu, estereotipoak desegin eta euskal gizartea emakume palestinarren inguruan sentsibilizatu ahal izan baita.



AURKIBIDEA

SARRERA	7
NOR GAREN	8
PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUETAKO ERREFUXIATU PALESTINARRAK	11
BIZITZA-HISTORIAK	13
LURRAREN ETA BALIABIDE NATURALEN ZAINDARIAK	15
ABEER AL BUTMEH	16
SHATAH ALAZZEH	20
BISAN AL MABHUH	24
FATHEYA SALEH	28
IRADA ZANEEN	32
EMAKUME EKINTZAILEAK ETA BERRITZAILEAK	37
AYA AL-ABBASI	38
MONALEEZA ISMAIL YASSIN AL-MASRI	42
SABHA ALNABAHEIN	46
HEZKUNTZAREN BIDEZ AURRERA EGITEN	49
BAYAN SAWALMA	50
WAFAA KHATER	54
FATIMA KATASH	58
NAKBA, PALESTINAKO ERREFUXIATUAK ETA HONDAMENDIAREN 75. URTEURRENA	63
MENWA RAYAN	64
NAIMA NAEL SHARAKAH	68
EMAKUMEAK, ARTEA ETA KULTURA	73
ABEER JIBRIL	74
DIMA KURRAZ	78
SHIREEN HASANNEN	82
ONDORIOAK	86

Palestinako emakumeen ahotsak euren historien bidez erakutsi eta Palestinako lurralde okupatuetan (PLO) bizi diren emakumeen egoera, zailtasunak eta erronkak hobeto ezagutzearren, *Palestinako Genealogia Feminista: emakume anitzen istorioak* argitaratu zuen UNRWA Euskadik 2016an. Palestinako emakumeen mugimenduaren eta feminismoaren bilakaera —hasieratik 2016ra artekoa— jorratu zen lan hartan, eta PLOetako garai hartako egoera humanitarioa aztertu.

Zenbait leku, adin, egoera sozioekonomiko, kokapen geografiko eta estatusetako Palestinako 16 emakumeren kontakizunak bildu ditugu bigarren lan honetan (*Palestinako genealogia feminista: eredu diren emakumeak*); halaber, PLOetako emakumeek jasaten dituzten zailtasunak jorratu ditugu, eta haien giza eskubideak urratzen dituen egoera hori gainditzeko erabiltzen dituzten estrategiak.

Gatazkek eta krisi humanitarioek ez diete berdin eragiten gizonei eta emakumeei; normalean, emakumeek pairatzen dute alderik txarreana, eta gizartean, politikan zein ekonomian haiek duten partaidetzak. Palestinako lurralde okupatuetan, familien sostengu bihurtzen dira emakumeak, bai

ekonomiari —sarritan, lan informalak eginenez—, bai alor emozionalari dagokienez, ahalik eta normaltasun eta duintasun handienaz bizitzen saiatzen baitira, okupazioa eta blokeoa gorabehera.

Eskubideen jabe direnez, haietaz baliatzen dira eta aldarrikatu egiten dituzte. Emakumeen premiak eta interesak ezkututzen badira, berriz, sufritu egiten du haien duintasunak, eta murriztu eskubideak.

Palestinako lurralde okupatuetako feministen jardunari laguntzen jarraitzea du xede UNRWA Euskadiren argitalpen honek. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzaz UNRWA Euskadik garatutako «Kontakizun alternatiboak, Palestinako emakume errefuxiatuen eskubide-urraketen aurrean» proiektuaren baitakoa da argitalpena, eta hau du helburu: ikuspegi orokorra eta kritikoa sustatzea euskal herritarren artean, estereotipoak gainditzeko eta Palestinako emakume errefuxiatuen ingurumen-arazoei eta eskubide-urraketei aurre egiten laguntzeko.

Ezinbestekoa da Palestinako emakumeen egoeraz jabetzea —errefuxiatuena, batez ere— haien borroka ulertzeko.

NOR GAREN

UNRWA

NBEren 1949ko Batzar Nagusian sortua da Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (UNRWA), Palestinako errefuxiatuei laguntza eta babesa emateko. Jordanian, Libanon, Sirian, Zisjordanian eta Gazako zerrendan bizi diren errefuxiatu palestinarrei laguntza eta babesa ematea da UNRWArekin eginkizuna, jasaten duten egoerari bidezko konponbidea aurkitzen zaion bitartean. Alor hauetan jarduten da agentzia, bai gatazka-garaietan bai nola-

baiteko barealdietan: osasuna, hezkuntza, babesa, gizarte-zerbitzuak, kanpamentuen azpiegiturak eta hobetze-lanak, mikrofinantzaketa, laguntza humanitarioa eta premiazkoa. Bederatziehun instalaziotik gora kudeatzen ditu, eta hogeita hamar mila lagunek baino gehiagok egiten dute lan haietan, gehienak errefuxiatu palestinarren estatua dutenak (%99). NBEko kide diren estatuen borondatezko ekarpenak dira UNRWArekin finantzaketa-iturri ia bakarra.

UNRWA ETA GENERO-BERDINTASUNA

Sortu zenetik ari da lanean UNRWA genero-berdintasuna sustatzeko eta Palestinako emakume errefuxiatuen behar espezifikoak asetzeko. Nazio Batuen sistemako partaide izaki, emakumeen eskubide eta genero-berdintasunaren inguruan onartutako nazioarteko tresnak hartzen ditu aintzat agentziak; besteak beste, Emakumeen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatze Konbentzioa (CEDAW). Horretarako, genero-politika erabiltzen du, eta genero-ikuspegia zeharka ezartzeko

estrategia bat, erakundearen kulturen, haren informazio-sistemetan, langileen gaitasunetan eta lan-eremuetan ikuspegi hori txertatzearen.

Estrategia desberdinak erabiltzen ditu UNRWAk bere bost jardueraren eremuetan —batez ere Palestinako lurralde okupatuetan—, haietako bakoitzean egoera humanitarioa eta emakumeen eskubideak zertan diren kontuan harturik, helburu hauek lortzearen: genero-indarkeriari au-

rre egitea; arreta psikosoziala, hezkuntza eta sexu- zein ugalketa-osasunari buruzko heziketa eta zerbitzuak eskaintzea; emakumeen ahalduntzea sustatzea, eta haien-tzat bizibideak sortzea trebakuntzaren, mikrokredituen eta haien komunitateen sentsibilizazioaren bidez. Genero-indarke-riari aurre egiteko UNRWAk azken urteotan egindako lanak alderdi hauek lehenetsi ditu: emakume biktimentzako arreta- eta erreferentzia-zentroak sortzea erakundea-

ren instalazioetan, eta komunitate osoaren prebentzioa eta sentsibilizazioa bultzatzea gizonen, mutikoen, emakumeen eta nes-ken artean.

Emakumeen erakundeekin eta oinarritzko zenbait gizarte-elkarterekin koordinatuta garatzen ditu UNRWAk jarduera horiek, haiek baitira garapen bidezkoa, inklusiboa eta iraunkorra bultzatzeko eragile nagusiak.

UNRWA EUSKADIREN KONPROMISOA

2006an sortu zen UNRWA Euskadi, bi hel-buru nagusi hauekin: Palestinako errefuxia-tuen egoera euskal gizartean ezagutaraz-tea, eta UNRWArekin lan humanitarioa eta babes-jarduera ezagutaraztea.

Horretarako, bi alorretan aritzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde histo-rikoetan:

- Laguntza Humanitarioa eta Garapena
- Herritartasun Globalerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa

Herritartasun Globalerako Hezkuntzari dagokionez, hau da UNRWA Euskadiren jardueren xedea: kontzientzia kritikoak suspertzea, herritarrei tresnak eskaintzea gizartean parte hartu eta hura aldatzeko, eta euskal gizartea mobilizatzea Palestina-ko errefuxiatuen egoera humanitario larria dela eta.

Zeharkako ardatz gisa, hau sustatzen du gure erakundeak: giza eskubideak, na-zioarteko zuzenbide humanitarioa, bakea-ren kultura eta genero-berdintasuna.



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

LIBANO



479.537 errefuxiatu
12 kanpamentu

SIRIA



568.730 errefuxiatu
9 kanpamentu

ZISJORDANIA



871.537 errefuxiatu
19 kanpamentu

GAZA



1.476.706 errefuxiatu
8 kanpamentu

JORDANIA



2.307.011 errefuxiatu
10 kanpamentu

PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUETAKO ERREFUXIATU PALESTINARRAK

Israelgo estatua sortu ondorengo arabiar-israeldar gerraren ondoren (1948), Palestinako 700.000 herritarrek baino gehiagok alde egin behar izan zuten etxetik eta Ekialde Hurbileko beste herrialde batzuetara jo, babes bila, edo euren herrialdeko beste ingurune batzuetara. Palestinako biztanleriaren exodo masibo hari Nakba deritzo («hondamendia», arabieraz). Munduko errefuxiatu guztien laurdenak —gutxi asko— palestinarrak dira, eta 2023an beteko dira 75 urte erbestera jo zutela. Errefuxiatu haiei ondorengoak gehituta, gaur egun 5,9 milioi lagunek pairatzen dute etengabeko gatazka-giroa, euren eskubideen urratze sistematikoa eta oinarritzko beharrak ase ezina.

Palestinako lurralde okupatueta (PLO) bizi dira 5,9 milioi lagun horietako batzuk, non etengabe urratzen baitzaizkie giza eskubideak.

Azken urteotan, berriz, kezkarariki egin du gora Israelgo indar armatuen erasoaldien kopuruak Zisjordaniako errefuxiatu-kanpamentuetan (Ekialdeko Jerusalem ere barne dela); areagotu egin da, halaber, herritar zibilen aurka munizio erreala

erabiltzeko joera eta kolonoen indarkeria. Bien bitartean, herritarren lekualdatzeak eta jabetzen zein etxeen eraispenak eguneroko ogia dute inguru horietan bizi direnek. Militarren okupazioak, batetik bestera mugitzeko murrizketa itogarriek eta bizibideen galerak, bestalde, higatu egin dituzte bizirauteko mekanismoak.

Gazako zerrendan, berriz, geroz eta larriagoa da egoera. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, legez kontrakoa da Gazako herritarrek lurrez, airez eta itsasoz jasaten duten blokeoa, zeinak 15. urte bete baitzituen 2022ko ekainean. Egoera hori dela eta, «aire zabaleko munduko kartzelarik handiena» goitizena jarri zitzaion Gazari. «Bizitzeko modukoa ez den lurralde» izendatu zuten kostaldeko enklabe hori, eta galera zein ondorio ikaragarriak utzi dituzten erasoaldi militar ugari pairatu ditu. Izugarri altua da langabezia-tasa, eta egoera sozioekonomikoaren hondamena dela eta geroz eta handiagoa da herritarren zaurgarritasuna: herritar gehien-gehienak laguntza humanitarioari esker bizi dira.

Egoera ikusirik, zaila da Palestinako errefuxiatuek bizimodu duina izatea eta 2030

Agendaren zein Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzea. Izan ere, mugatua dute errefuxiatuek oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko aukera (ura eta elektrizitatea, adibidez); lekualdatze behartuaren eten-gabeko mehatxupean bizi dira, norberaren osotasun fisikoa ere arriskuan dela; ez zaizkie herritar guztiei bermatzen oinarritzko osasun-zerbitzuak, eta hezkuntzarako eskubidea maiz urratzen du indarkeriak; pandemiak, berriz, areagotu egin du Palestinako errefuxiatu askok egunero pairatzen zuten ziurgabetasuna, bai eta antsietate-eta estres-mailak ere, eta herritarren osasun mentala eta ongizatea kaltetu.

Ez die berdin eragiten egoera gogor horrek gizonei eta emakumeei, mutilai eta neskei, genero-alderdi oso berariazkoak baititu. Zapalkuntza bikoitza jasaten dute egunero emakumeek: Israelen okupazioa eta indarkeria, eta gizarte patriarkala. Osotasun fisikoaren aurkako mehatxu bidegabeak jasaten dituzte Palestinako mutikoek eta gizonek; emakumeek eta neskek, berriz, beste era bateko arazoak pairatzen dituzte: ziurgabetasun handiagoa elikadura aldetik, zailtasun handiagoak osasun-eta hezkuntza-zerbitzuak jasotzeko, genero-indarkeriazko etengabeko egoerak, zeharkako indarkeriak eragindako traumak eta beste zenbait gizarte-jarduera kaltegarriren mehatxua (herentzia- eta jabetza-eskubiderik eza edo eskubide mugatua, nesken ezkontza goiztiarra, mugikortasun-mugak...).

Horrenbeste zoritxarren hartzaille izan arren, Palestinako gizartearen giltzarri eta eraikitzaile sendoak dira hango emakumeak. Normalean, ez dute bakarka egiten gizartearen trinkotasunari eusteko lan hori, taldean baizik. Beren eskubideen alde jar-

duteko antolatzen dira, gizarte zibilaren erakundeetan edo oinarritzko elkarteetan, errefuxiatu-eremuetako emakume-zen-troetan eta bestelako gizarte-mugimenduetan. Aldaketa-eragile aktiboak dira: jakintza, aliantzak eta sareak partekatzen, eraikitzen eta sortzen dituzte, bakoitza bere egoera sozial, ekonomiko eta kulturaletik abiatuta.

Ez dator bat irudi hori —ez osorik, behintzat— Mendebaldeko gizarteok Ekialde Hurbileko emakumeez ditugun estereotipoekin (gizaki pasiboak, tradizio eta ohitura patriarkalei kateatuak...). Ikuspegi hori ezabatzearen, Palestinako 16 emakumeren historiak bildu ditugu argitalpen honetan. Beren bizitzan protagonista dira emakume guztiok, eta muturreko egoeretan ari dira bultzatzen zenbait ekimen.

Emakume horien ahotsek erakusten diguten errealitate konplexuan badago tarterik zenbait ekimen indibidual eta kolektibo garatzeko, giza eskubideen urraketa sistematikoa gorabehera, alor askotan gainera: nekazaritzako ingeniariaritz, artea, aplikazio informatikoen garapena, oroimen kolektiboaren eraikuntza eta abar.

Palestinako emakumeek euren gizartearen eraikuntzan duten esku-hartze aktiboa berretsi egiten du emakumezko horien indarrak eta kemenak. Bestalde, historia horiek aukera ematen digute zera detektatzeko: muturreko eskubide-urraketak emakume horien bizitza pertsonalak eta profesionalak garatzeko bidean jartzen dituen oztopoak eta mugak.

Hona hemen —gaika sailkatuta— emakume horien bizitzan historiak.

BIZITZA- HISTORIAK



LURRAREN ETA BALIABIDE NATURALAREN ZAINDARIAK

BIZITZA- HISTORIAK

LURRAREN ETA BALIABIDE NATURALEN ZAINDARIAK

Mundu osoko biztanleriari eragiten diote ingurumenaren hondamenak eta klimaren krisiak, baina are larriagoak dira ondorioak herritarrek zaurgarriagoak diren lekuetan; esate baterako, Palestinako errefuxiatuen bizilekuetan. Nekazaritzako uzea eta laboreentzat oso mehatxu larria dira zenbait fenomeno klimatologiko —lehortekak, uholdeak, uraren kutsadura, lurzorua higadura...—, bai eta aipatutako biztanleriaren bizimoduarentzat ere.

Gainera, ingurumenaren narriaduraren bigaudeak dira okupazioa eta blokeoa, zeinek berez ere mugatzen baitute ura, energia eta elikagaiak eskuratzeko palestinarrek

duten eskubidea. Egoera zail horri egiturazko genero-desberdinkeriak gehituz gero, hona emaitza: Palestinako emakume eta neska errefuxiatuek gizonek baino diskriminazio handiagoa pairatzen dute.

Laburbilduz, **klima-krisiaren ondorio orokorrek areagotu egiten dute Palestinako emakume errefuxiatuen zaurgarritasun-maila**. Dena dela, zailtasun guztiak gorabehera egoera hori aldatzen saiatzen dira, eta emakumeen bizimodua hobetzeko ez ezik klima-krisiari eta ingurumenaren hondamenari aurre egiteko ekimenak bultzatzen dituzte.



© Mohammad Nofal Argazkia

ABEER AL-BATMA

Egilea: Duha Hmeidan

Munduko beste emakume batzuen egoe-
rarekin alderatuta, oso bestelakoa da Pales-
tinakoena. Blokeoak eta okupazioak egu-
neroko bizimoduaren alor askori eragiten
diete; besteak beste, lurraren laborantzari
eta edateko ura eskuratzeko aukerari, biak
ere ezinbestekoak bizirik irauteko. Zorio-
nez, badago jendea baliabide naturalak
zaintzearen garrantziaz eta balioaz ohar-
tzen dena; esate baterako, Abeer Al-Batma,
Palestinako ingurumen-ekintzaile sutsue-
netakoa.

Gaur egun, Palestinian Environmental Net-
work (Palestinako Ingurumen Sarea) eta
Friends of Earth Palestine (Lurraren Adis-
kideak, Palestinako adarra) erakundeetan
egiten du lan Abeerrek, eta oso gazte-
tatik datorkio ingurumenarekiko ardura.
Naturaren xarmagatik eta ur-iturriengatik
ospetsua den Battir herrixkan jaio zen, Bet-
leem hirian. Nekazaritza eta lurra maitatuz
hazi zen Abeer, eta unibertsitate-ikasketak
hautatzean ere bide beretik jo zuen: lehen-
bizi ingeniariatza zibila ikasi zuen —uraren
ingeniaritza, bereziki—; ondoren, inguru-
men-jardueretan matrikulatu zen.

*«Zisjordanian eta Gazako zerrendan ingu-
rumenaren aldeko kanpainak antolatzea
da nire eginkizun nagusia. Palestinako he-
rritar-talde zaurgarrienei laguntzen saiatzen
gara, ingurumenaren aldetik ere premiazko
esku-hartzeak behar baitituzte, eta loturak
sortzen ditugu talde horien eta agintarien
artean; zehazki, taldeen eta Palestinako in-
gurumenaz arduratzen den agintaritzaren
artean (Ingurumenaren Kalitatearen Aginta-
ritza). Gure helburua, berriz, hau da: herrita-*

*rren ahotsa prozesu politikoetara eta eraba-
kietara eramatea, haien beharrak asetzeko».*

Ura, lurra eta Palestinako lurralde okupa-
tuetako gainerako baliabide naturalak
erabiltzeko eskubideen aldeko kanpainak
prestatzen eta martxan jartzen ere lagun-
tzen du Abeerrek, batez ere Israelek Pales-
tinako ingurumenaren aurka egiten dituen
urraketak ikertzen:

*“Zisjordanian eta
Gazako zerrendan
ingurumenaren aldeko
kanpainak antolatzea
da nire eginkizun
nagusia”.*

*«Ikuspegi estrategiko bati jarraikiz kontro-
latzen ditu Israelek baliabide naturaletan
aberatsak diren zenbait lur; besteak beste,
Palestinako 30 iturburu dauden sailak. Azke-
neko oliba-uztan argi ikusi zenez, ezinezkoa
izan zitzaien nekazari palestinarrei euren lu-
rretara iristea». Emakumeak izan dira beti
lehentasuna Abeerrek diharduen proiektu-
tuetan, ingurumen-gaietan haiek ahalzun-
tzea, zehazki: «Eragin esanguratsua duten
gure proiektuen artean daude Jordaneko
haranean eta Gazan energia berriztagarrien
alorrean bultzatzen ari garenak. Sektore ho-
rretan emakumeen ahalmenak indartzea da
gure asmoa, eragile aktibo gisa jardun daite-
zen Zisjordanian eta Gazan».*

Hona 2020an Hiri Eraldatzaileen Sariketan
finalista izan zen ekimen horren xedea:



«Eragin handiagoo izatea emakumeek ingurumen-politika nazionaletan, politika horiek genero-ikuspegia aintzat hartu eta emakumeen beharrak ase ditzaten, haiei eragiten baitie gehienbat energia-eskasiak».

Izan ere, emakumei eta gizonei ez die berdin eragiten Gazako zerrrendako eta Zisjordaniako energia-urritasunak. Gainera, ez zaie galdetzen emakumei zer deritzeten energia-soluzioei, eta ez dute erabakietan parterik hartzen. Hain justu ere Palestina-ko energia-sistema eraldatzeko sortu zen PENGON ekimena («Emakumeak ahaldundu, energia berriztagarrietan lider izan daitezen»): emakumeek kontrolatzen dute eguzki-energiaren ekoizpena, eta energia garbien gaineko erabakietan parte hartzeko eta euren herrietan aldaketa gidatzeko prestatzen dituzte. Abeerren iritzian, *«egin-kizun garrantzitsua dute Palestinako emakumeek uraren eta ingurumenaren sektoreetan —baita etxe barruan ere—, ur-iturrien kudeaketan eta kontsumoan, eta hondakin*

solidoen kudeaketan». Hori dela eta, emakumeen artean gaitasun eta ohitura jakin batzuk sustatzea da ekimenaren xedea, ingurumena zaindu eta politika eraldatzaile “berdeagoak” mendera ditzaten.

Abeerrek dioenez, gizonak baino irekia-
goak eta malguagoak dira emakumeak, eta aiseago berenganatzen dituzte ohitura eta jokabide berriak. Gizonak eta emakumeak aritzen dira proiektu horietan, baina batez ere emakumeek dute informazioa jasotzeko jarrera; adibidez, ingurumen-teknika naturalei buruzkoa, ezinbestekoa nekazaritza organikoa garatzeko eta —hartara— produktu kimikoen erabilera baztertzeko. Palestinako lurralde okupatuetan, Israelek kontrolatzen du baliabide naturalen % 85¹; honenbestez, urratu egiten zaie palestinarrei oinarritzko baliabide batzuk eskuratzeko eskubidea (ura, esate baterako). Abeerrek dioskunez, aski lituzkete palestinarrek egungo ur-iturriak baldin eta Israelek kontrolatuko eta agortuko ez balitu.

1 Hiru eremutan (A, B eta C) zatitu zuten Zisjordania Osloko Hitzarmenak, eta Israelen eta PA-Palestinako Agintaritzaren artean banatu haien kudeaketa administratiboa. A eremua PAren kontrolpean dago, administrazioari eta segurtasunari dagokienez; B eremuan, berriz, PAri dagokio administrazio zibila, baina segurtasunaz PA eta Israel arduratzen dira; C eremua (lurraldearen % 60), azkenik, Israelen kontrolpean dago erabat, eta han daude Zisjordaniako baliabide natural gehienak. Gaur egun ere indarrean dirau banaketak.

Alabaina, ukatu egiten zaie palestinarrei OMEk gomendatzen duen ur-kantitatea jasotzeko eskubidea (150 litro pertsonako eta eguneko). Palestinako inguru batzuetan —Betleemen ekialdean eta Hebron hegoaldean, adibidez— egunean 10 litroko hornidura baino ez zaie bermatzen herritarrei, Abeerrek dioenez. Gainera, aha-lerin handia egin behar dute palestinarrek ur hori eskuratzeko —eta garesti ordaindu— ez baitzaie iristen ohiko banaketa-sareetatik. Ironia ankerra badirudi ere, palestinar askok Israeli erosten diote ura.

Ikusirik ura izateko eskubideaz baliatzeko eskualde batzuetan Palestinako emakumeek dituzten arazoak, ingurumenaren eta uraren alorretan diharduten zenbait

erakunderekin elkarlanean aritzeko ahaleginetan dabilta Abeer eta bere taldea, palestinarrek ura eskuratu eta beren lurretan irauteko aukera izan dezaten. Halaber, ur-hornidurarako azpiegiturak ere eraikitzen dituzte, kanalizazio-sareak zabalduz, urrutiko bizilekuetan ere ur-tangak izan ditzaten, Israelen eragozpenak gorabehera.

Arrakasta handia izan dute Abeerren eta beste ingurumen-ekintzaile batzuen ekimenek (hondakin solidoak kudeatzea; energia garbiak eta ingurumena errespetatzen duten teknologia naturalak erabiltzea), eta hobetu egin dituzte emakume palestinarren lurra zaintzeko jardunak eta ingurumenaren jasagarritasuna.



© Mohammad Nofal, Argazia



© Wisam Adnan Agazkia

**SHATHA
ALAZZEH**

Egilea: Fayrouz Elias Salim Shehadeh

Betleemgo hiriaren iparraldean dago Aidako kanpamentua, 5.800 lagun bizi diren 66.000 m²-ko lursaila. Bi eta lau solairuko hormigoizko etxeetan bizi dira guztiak. Hormigoizko «paisaia» hori larriagotu egiten da 8 m-ko altuerako harresiaren bidez, zeinak kanpamentua inguratzen duen. Horri, populazioa kontrolatzeko Israelgo armadaren sei dorre gehitu behar zaizkio. Bestalde, Israelgo armadak gauzez egiten dituen sarraldiak eta maiz —eta gogoz— jaurtitzen dituen gas negar-eragileak ere jasan behar izaten dituzte hango herritarrek.

Testuinguru horretan dihardute tokiko zenbait elkarteek garapen jasagarriko proiektuak bultzatzen, oinarrizko zerbitzuen osagarri izan daitezen.

Shatha Alazzehe da LAJEE zentroko Osasun eta Ingurumen Unitateko burua. Kanpamentuaren sarreran dago LAJEE («errefuxiatua», arabieraz). Hamar laguneko taldea gainbegiratzen du Alazzehek: hiru mediku eta zazpi laguntzaile. Ekintza berritzaileen bidez kanpamentuko biztanleen bizimodu aldatzeko saiatzen dira Alazzehe eta bere taldea.

Ingurumen-sailean, adibidez, baratzeak ari da egiten kanpamentuko etxeetako teilatuetan, haurrei eta gazteei ingurumena nola babestu irakasteko udako kanpamentuak antolatzen dituzte, eta herri-baratze bat eraikitzen ari dira Battir herrian, Betleemen mendebaldean, ur-iturritan aberatsa den inguru batean.

Osasunari dagokionez, etxeko arreta ematen diete gaixotasun kronikoak dituzten 150 pazienteri; bestalde, belaunaldi arteko

topaketak antolatzen dituzte, eta Palestinako ondareari buruzko kultura-lantegiak.

2014an eman zuten lehen urratsa, Shathak Betleemgo Unibertsitatean biologiako eta laborategiko masterra amaitu berritan. Aidako eta Beit Jubrin-eko (Aidatik hurbil) errefuxiatu-eremuetako uraren kalitateari buruzko landa-azterketa bat egiteko kontratatu zuen LAJEEk. Kanpamentuko etxe guztiak banan-banan bisitatu zituzten Shathak eta haren lankideek, galdera-sortak banatu eta etxeetako ura aztertzeke. Unibertsitateko laborategietan egiten zituzten analisiak. Kezkagarriak izan ziren ur-azterketen emaitzak: hamabostean behin iristen da ura etxeetara (batzuetan, hilean behin), non plastikozko tangatan gordetzen den, teilatuan. Hori dela eta, aise kutsatzen da ura, eta oso kaltegarria izan daiteke edateko erabiltzen bada.

«Palestinan, arazo politikoa da urarena, palestinarrak ez baitugu kontrolatzen ondasun hori. Israelek kontrolatzen du uraren banaketa Palestinako lurralde okupatueta, putzu artesiarrak eta iturburuak Palestinako Agintaritzaren kontrolpeko eremuetan egon arren. Berehalako konponbide hau proposatu genuen: seguru biltegitratzea edateko ura, iturritik jaso orduko, bidoietan edo beirazko botiletan, eta teilatuko tangetako ura beste erabilera batzuetarako gordetzea».

Batetik bestera bisitaldiak egitearen poderioz beste ingurumen-arazo batzuez ere jabetu zen Shatha: etxeko hondakinen kudeaketa, urbanizazioa eta lekuri eza, eta harresiaren zama, zeinak areagotu egiten baitu hormigoizko paisaia eta ito egiten baitu landa-eremua. Zerbait egin beharra zegoela ikusirik, zer proiektu bultzatu hasi ziren pentsatzen Shatha eta haren lanki-

deak, eta zer baliabide erabili beharko ziren landa-eremuko ingurunea eta herriarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko. Horrela sortu zen Osasun eta Ingurumen unitatea, orduz geroztik Shathak zuzentzen duena. Proiektu berritzaileak sustatzen eta eguneratzen jarraitzen du unitateak, mundu osoan errefuxiatuen alde lan egiten duten AEBko elkarteekin laguntzaz.

«Ingurumen-arazoei aurre egiteko konponbide bila ibili ginen, familiarekin elkarlanean — emakumeekin, batez ere—, eta hala ohartu nintzen Nakbak lurrarekiko haustura eragin duela belaunaldi berrietan. Nekazariak ziren 1948an beren herriak utzi behar izan zituzten aitona-amonak; lurretik bizi ziren. Gaur egungo kanpamentuak, aldiz, hormigoizko blokez beteta daude; hori dela eta, irtenbide baten bila hasi ginen, iraganarekin lotura izateko eta kanpamentuak biziberritzeko».

«Zentroko teilatuan sortu genuen lehenbiziko baratzea, zurezko edukiontzietan; ondoren, berotegietan ekoizten hasi ginen, azkarrago heltzen baita fruta. Baina ur-ekaskia zela eta zenbait familiak ez zuen bat egin proiektuarekin —udan, batez ere—, edo atzera egin zuten eta berotegiak kanpadenda bihurtu, bizitzeko leku gehiago izatearren. Soluzio bat behar genuen, eta laborantza hidroponikoa-ri ekin genion duela hiru urte. Izan ere, uraren % 70 aurrezten da sistema horren bidez. Gaur egun 50 bat berotegi hidroponiko ditugu Aidako eta Beit Jubrin-eko kanpamentuetako etxeetako teilatuetan. Proiektuaren onuradunak hautatzeko, berriz, irizpide hauek erabili genituen: 50 m²-ko berotegi bat eraikitzeke adina leku izan behar zuen teilatuak, eta eguteraan egon. LAJEE zentroak banatzen du behar den ekipamendu guztia; baratze hidroponikoei buruzko trebakuntza ematen zaie onuradunei, eta haien jarraipena egiten

laguntzen dugu. Familia txikiei elikadura-segurtasuna eskaintzea eta elikagaiak hazteko eskubideaz baliatzeko aukera eskaintzea, hori zen proiektuaren hasierako helburua, eta gure lana horretara bideratu dugu».

Ez naiz ausartzen esatera familia horiek elikadura-burujabetza lortu dutela; izan ere, kontzeptu zabala eta konplexua da hori, ekimen esanguratsuak eskatzen dituen. Baina zerbait egin beharra zegoen; konponbideak bilatu behar genituen, eta itxaropen-mezu hau zabaldu: errefuxiatu-eremu batean ere sor daiteke mikromundu bat.

"Nakbak lurrarekiko haustura eragin du belaunaldi berrietan".

Zentroan lan egiten zuen bitartean, ikasi ere egin zuen Shathak: Ingurumen Ikerketetako masterra burutu zuen Al-Qudseko unibertsitatean (Abu Dis). Lau hilabeteko praktikaldia egin zuen urte hartan bertan Stokohlmeko Unibertsitatean, Abu Diseko Unibertsitatearekiko truke-hitzarmenaz baliatuta. 2020an, berriz, Osasun Publikoko lizentzia eskuratu zuen, online, Harvardeko Unibertsitate ospetsuan. Estatu Batuetan doktoretza presentziala egiteko aukera eskaini zion Harvardek, baina ezin izan zuen hara joan, artean oso txikia baitzen Shatharen semea. Familia lehenetsi zuen, beraz.

«Ez naiz batere damutzen, maite dudana lan egiten jarraitzen baitut, egunero ikasten. Esperientziak gehiago irakasten du liburuek baino».

«Joan den udazkenaz geroztik, lursail bat daukagu alokatuta Battir herrian, non ur-iturri ugari baitaude, eta herri-baratze bihurtu dugu. Alberjiniak, tomateak, babarrunak, kuiatxoak eta abar landatzen dituzte kanpamentuko 20 emakumek eta herriko beste 20k euren familiak eta inguruko jendea elikatzeko.

«Proiektuko partaideren bati hau entzutea izaten da nire motibazio-eragilerik handiena: "Lurra ukitzen dudanean, sentitzen dut aurkitu dudala nire bizitzan falta zen zerbait", edo beste hau aditzea: "Harro sentitzen naiz etxeko teilatutik edo herri-baratzetik barazkiak jasotzen ditudanean. Saskia barazkiz

beteta itzultzen naiz etxera; elikagai osasuntsuak jaten ditugu, eta hobetu egiten dugugure osasuna"».

Aparta da Shatharen ibilbidea; biziki estimatzen dute inguru hartako unibertsitateek ingurumena zaintzen eta hidroponiaren alorrean biologo gisa egiten duen lana, eta noizean behin gai horietaz hitzaldiak emateko deitzen diote. Libanoko Beirut hiriko Amerikar Unibertsitatean, adibidez, trebakuntza-saio bat emango du laster.

Emakumeek beren buruan eta aldatzeko gaitasunean konfiantza izan behar dutela dio Shathak eta, hori lortuz gero, gizonek nahitaez hartuko dituztela aintzat.



© Misan Jaafari, Argazkia



© Ahmad Abu Knai, Argazkia

BISAN AL MABHUH

Egilea: Amjad Shabat

Ingeniaria da Bisan Al Mabhuh —22 urteko errefuxiatu palestinarra—, energia berriztagarrietan espezializatua, Al Azhar Unibertsitatean graduatu berria. Gazako zerrendan bizi da, Al Burjeko errefuxiatuentzako eremuan. UNRWako eskoletan, bere ikasgelako bost ikasle onenen artean egon zen.

Ingeniari izatea, horra Bisanen betiko ametsa. *«Betidanik gustatu zaizkit matematika eta fisika. Tawjihiko institutuan graduatu, eta aukeratu egin behar izan zuen: irakasle jardun, ala laborategi mediko batean. Izan ere, bi arlo horiek beste batzuk baino ego-kiagoak dira emakumeentzat, Palestinako gizartearen iritzian. Presio hori zela eta, zientzia medikoak ikastea erabaki zuen. «Lehenbiziko seihilekoa amaitzean, kontu-*

ratu nintzen ez zela hori nik nahi nuena». Temati jarri zen Bisan, eta lortu zuen beste espezialitate bat ikastea: energia berriztagarrien ingeniaritza.

*"Energia berriztagarriak
oso garrantzitsuak izan
daitezke Gazan".*

Gazako zerrendako unibertsitateetan ematen hasi berria zirena. Etorkizuneko energia direla uste du Bisanek, eta horregatik hautatu zuen arlo hori. *«Egunen batean, agortu egingo dira erregai fosilak, eta energia-gabezia izugarria izango dugu».* Bere iritzian, airearen, uraren eta luraren kutsadura



© Ahmad Abu Kmail, Argazkia



konpontzeko bidea ere energia ekoizteko modu berriek ekarriko dute.

Energia garbiak dira berriztagarriak — eguzkiarena, batez ere—, eta oso garrantzitsuak izan daitezke Gazan elektrizitatea ekoizteko eta airearen kutsadura gutxitzeko. Bisan bizi den kanpamentuan, adibidez, eguzki-energiako Bioenergy estazioak uraren gazitasuna murrizteko ahalmena du; hori eginez gero, herritarrek txorrotatik bertatik jasoko dute edateko ura.

Eguzki-panel autogarbigarri automatizatu du izena Bisanen proiektuak, eta eguzki-panelak garbitzea du eginkizun nagusia.

«Energia eta eguzki-sistemak ikertzen ari nintzela, arazo txiki bat atzeman nuen, energia-eraginkortasunari eragin ziezaiokeena. Hautsez estalita baldin badaude sistemak, % 60-70 inguru jaisten da haien energia-ekoizpena. Mila watt ekoitzi behar dituen eguzki-zelula batek 30 watt bakarrik ekoizten ditu hautsez estalita badago. Gainerakoa, berriz, alferrik galdutako energia da».

Oso zabalduta dago Gazan eguzki-sistemak bidezko elektrizitate-ekoizpena, baina oso jende gutxi arduratzen da eguzki-panelak garbitzeaz. Adituen iritziz, itzalek adinako eragina du zikinkeriak eguzki-panelen ekoizpenean, eta «eguzki-panel gehienak ez dira inoiz garbitzen».

Gazako eguzki-panel erabilienak sare-ra konektatuta daude; hori dela eta, sare elektriko publikora bidal dezakete ekoiztako energiaren soberakina. Gazan pairatzen duten energia-eskasiaren arazoa gainditzeko lagunduko luke horrek. 2007az geroztik jasaten dute Gazako herritarrek energia-urritasuna, Israelgo armadak elektrizitate-konpainia bonbardatu zuenetik.

«Eguzki-panelak garbitzeko munduko sistema ezagunen % 70 inguru aztertu nituen. Haietako asko ezin dira Gazan erabili, blokeoa dela eta makinak ezin baitira sartu edo, kasurik onenean, Israelgo agintarien baimena behar da horretarako. Eta ez da erraza izaten baimena lortzea».

Ekipamendu-gabezia ugariri egin behar izan zion aurre Bisanek proiektua garatze-

ko prozesuan. *«Ez dute uzten sartzen Gazara 24 W-eko korrante zuzeneko motordun sorgailurik»*. Arazo horri aurre egiteko, autoe-tako haizetako-garbigailuen sorgailuak birziklatu zituen.

Mila eta berrehun dolar inguru kostatu zitzaion proiektua; merkatuan salgai daudenek, berriz, lau mila inguru balio dute. *«Urtebete eman genuen probak egiten, azken prototipoa lortu arte»*. Sarritan gelditu behar izan zuen, blokeoa dela eta Gazako zerrendan aurkitzerik ez dagoen materialen ordeztokoak eskuratzeko, baina

azken emaitzak UCAS Incubator-Gazaren Hackathon Saria jaso zuen 2020an. Orain, makinari automatikoki funtzionarazteko eta gailu adimendun bihurtzeko ahale-ginean dihardu Bisane. Halaber, energia berriztagarrien alorrean duen ezagutza eta trebakuntza areagotzeko asmoa du, etorkizunean eguzki-panel gehiago eraikiz Gazako zerrendako herritarren sufrimendua baretzearen. *«Elektrizitate-ekoizpenari laguntzeaz gain, sorgailuek eragiten duten aire-kutsadura ere murriztu egingo da proiektu horri esker»*.



© Ahmad Abu Kmail, Argazia



© Michael Bhar, Anzakia

**FATHEYA
SALEH**

Egilea: Haneen Harara

«Datil-palmondoak» deritzon toki bat dago Gazako zerrendan, Deir al-Balah errefuxiatu-eremuaren ondoan, non olibondoak eta datil-palmondoak landatzen baitira, beste zuhaitz-mota askoren artean. Gazako nekazaritza-inguru onenetakotzat jotzen da eremu hori, eta datilen ekoizpe-na dute diru-iturri nagusi Deir Al-Balahko herritar askok. Ezin gozoagoak dira, izan ere, hango datilak. Hamabost urtetik gora dira han bizi dela Fatheya, nekazari eta erlezain trebe askoa.

Jatorriz Beersheba herrixka okupatukoa da Fatheya Saleh errefuxiatu palestinarra, eta 58 urte ditu. Ezkondua da, bi alaba eta bost semeren ama. Nekazari palestinarrak gehienek bezala, Fatheyak ere oso gogoko du olibondoak eta palmondoak aldatzea, eta kuiatxoak, piperrak, alberjiniak, perrexila eta menda lantzea. Baina ureztatu egin behar dira produktu horiek guztiak, eta ez da erraza Gazan ura aurkitzea.

Gogoan du Fatheyak bere aitona-amonek zementuzko putzuak eraiki ohi zituztela Beersheban, euri-ura bildu eta landareak ureztatzeko, bai eta eguneroko bizimoduko beste eginkizun batzuetarako erabiltzeko ere. Gaur egun ez dago ez lekurik ez instalaziorik euri-ura biltzeko —diosku Fatheyak—, eta itsasoan amaitzen du, inork aprobetxatu gabe. Alabaina, hobe da euri-ura lurpetik ateratzen dena baino. Gazan, izan ere, gazitasun-maila handia du lurpeko urak, kutsatua dago gehiena, eta oso urria da, putzu asko eraiki baitira hura ustiatzeko, baimenik gabe gainera.

"Ez dut lantzen lurra egunero zer jana izateko, baizik eta lurra maite dudalako".

Arazo eta oztopo ugari aurkitzen dituzte Gazan bizi diren errefuxiatu palestinarrak ura eskuratzeko (edatekoa, nekazaritzarako edo eguneroko bizimoduko edozer-tarako).

«Etxeetara iristen den ura ez da gizakiek erabiltzeko modukoa —ez jakiak prestatzeko, ez edateko—; hori dela eta, jende askok erosten du gatzgabetze-instalazioetako ura».

Ur-kontsumoa mugatzen saiatzen da Fatheya, lurpetik ateratzen dena ez baita landareak ureztatzeko egokia. Putzu baten jabe da, baina ez du ur askorik ematen; gainera, erauzteko makinek ez dute ongi funtzionatzen, baina diru asko behar da haiek konpontzeko.

«Ez dut lantzen lurra egunero zer jana izateko, baizik eta lurra maite dudalako. Libre jaioak gara. Ezin gara bizi eremu itxi batean. Batzuetan, lurra saltzea ere pentsatzen dut, egoera ekonomiko zailari aurre egiteko. Baina ez etsitzeko esaten dit senarrak. Hemen-goak garela gogorarazten dit, eta ezin diogula lurrari uko egin».

Ezaguna da Gazako zerrenda loreen ekoizpenagatik eta esportazioagatik, eta ospetsuak ziren garai batean hango kotoia, zekalea eta garia, guztiak ere atzerriara esportatzen zirenak. Egun, tomateak, patatak, mahatsak, luzokerrak, meloiak, marrubiak, pikuak eta angurriak aldatzen dira gehienbat, bai eta zitrikoak ere (limoiak eta

laranjak). Emakumeak dira nekazaritzan diharduten gehienak, eta gogor egiten dute lan, soldata eskasaren truke: hiru bat dolar eguneko.

Arrazoi askok eragiten dute ur-eskasia: Israelen blokeoak, euri-kantitateak urte batetik bestera izaten dituen gorabeherak, gehiegizko kontsumoak, kutsadurak eta ur-sarerako ekipamendu egokirik ezak.

«Nabarmen eragin dio urari Israelen blokeoak. Israeldarren kokaguneak Gazako zerrendatik erretiratu aurretik, Al-Mawasitik lurralde okupatuetara desbideratzen ziren ur gezaren erreserbak, transmisio-lerroetatik. Ur-eskasia aurreikusten zutenez hurrengo urteetarako, Gazako lurpeko ura ateratzeari ekin zioten».

«Hemen, nekazaritzatik bizi gara, hori dugu ogibide; baina jada ez da lehen bezalakoa, uzta ona izateko produktu kimikoak eta zenbait botika erabili behar baitira. Hori dela

eta, garestitu egiten da ekoizpena, eta jende askok ezin du uzta propiorik izan. Erleei ere eragin die aldaketak: lehen, lau zpabost kilometro bidaiatzen zuten, jan bila. Egun, berriz, Israelgo okupazio-indarrek botikak ihinztatzten dituzte banaketa-hesian, eta produktu kimikoak isurtzen fumigazio-hegazkinetatik. Erleen heriotza eta soroen galtzea eragiten dute jarduera horiek. Gizaki gisa ez ezik, nekazari gisa ere eragiten digu Israelen okupazioak. Nekazaritza dugu ogibide, izan ere».

Abeltzainei ere egiten die kalte blokeoak: «Artzain batzuek banaketa-hesiaren ekialdeko muga ingurura eramaten dituzte ardiak, Deir al-Balah eskualdean ez baitago artzaintzarako lur egokirik. Zoritxarrez, batzuetan tiro egiten diete artaldeei, eta batzuk hil egiten dituzte. Bestalde, lurrera produktu kimikoak isurtzen dituztenez, inguru horietan elikatzen diren animaliek ere jasaten dituzte horren ondorioak. Okupazioak ito egiten ditu palestinarrak, ez die arnasa hartzen uzten, eta animaliei ere eragiten die itomen horrek».



IRADA ZANEEN

Egilea: Amjad Shabat

Gazako zerrendako iparraldean dagoen herrixka batean, nekazaritza hidroponi-koan jarduten da 26 urteko emakume bat (Irada Zaneen), barazkiak ekoizteko. Nekazaritza-ingeniaritza ikasi zuen Iradak, Gazako Al Azhar Unibertsitatean. «Ereintza segurua» deritzon proiektu batean egiten du lan, ongarriak, produktu kimikoak, pestizidak eta intsektizidak egokiro nola maneiatu erakusten nekazariei, eta produktu seguruen erabilera sustatzen.

Lurrik gabe landareak aldatzean datza hidroponia deritzon nekazaritza-mota. Uretan mantenugai mineralak disolbatzen dira landareak elikatzeko (uztak, norma-lean). Nekazaritza Ministerioak Gazako Zerrendan bultzatu dituen proiektu berri eta arrakastatsuetako bat dugu hidroponia. Ministerio horrek dienez, ingurumenean eragin positiboa du hidroponiak, ur gutxiago kontsumitzen baita ohiko nekazaritzan baino; halaber, lurra antzutzen duten produktu arriskutsuen erabilera ere murriztu egiten da. Gainera, elikagai seguruak eta kalitate handikoak ekoizten dira hidroponiaren bidez. Oso garrantzitsua da nekazaritza-metodo berri hori, bi arrazoiengatik: Gazako zerrendak ur-eskasia pairatzen duelako, eta gutxitu egin delako nekazaritzarako luraren azalera. Herritarren elikadura-beharrak, aldiz, geroz eta handiagoak dira.

Iradak dioskunez, nekazaritza tradizionalak halako bi ekoitz dezake hidroponia sistemak, denbora gutxiagoan gainera. Bestalde, nekazaritza tradizionalak baino askoz ere ur gutxiago behar du, % 90, gutxiago. Metodo tradizionala erabiliz, 400 litro ur behar ditu nekazariak kilo bat tomate ekoizteko; hidroponiaren bidez, berriz, aski ditu 70 litro, Iradak azaldu duenez.

«Bi urtean behin aldatzen dut ura; hau da, lau landatze-ziklotarako erabiltzen dut».

Hidroponia izan zen Iradaren graduazio-proiektuko gaia. 2018an, «Hatsa» izeneko ekimena jarri zuen martxan, eta handik urtebetera lortu zituen lehen emaitzak. «Nire graduazio-proiektua garatu eta lurrean probatu nahi nuen, aurrerago nire esperientzia handitzearren».

"[Hidroponiak] nekazaritza tradizionalak baino %90 ur gutxiago behar du".

Hidroponiaren alorrean lehendik ere egin ziren Gazan zenbait esperimentu hostodun barazkiak ekoizteko (uraza, adibidez), baina Iradak urrats berri bat eman zuen: fruitudun barazkiak ekoizti zituen, lehenbizikoz, zenbait urrats zientifiko eta praktikoa aintzat hartuta. Nekazaritza tradizionalak halako bi ekoitz zezaketen plantulak garatu zituen. Urtebete esperimentatzen aritu ondoren, 14 landare-barietate ekoizti zituen Iradak: angurriak, luzoker txertatuak, kuiatxo horiak, piper horiak, hibiskoak, tomateak, loreak, tipulak eta alberjiniak.

Nekazaritza tradizionalak lan handia eskatzen du: lurra prestatu egin behar da, goldatu, ureztatze-kanalak instalatu... «Hidroponia, berriz, errazagoa da: aski da ur-dukiontzia betetzea, ongarri pixka bat gehitzea, ontziak aldatzea eta ur-ponpak elikatzeko». Iradaren proiektuaren berri izan ondoren, beste sei emakumek ekin diote teknika bera erabiliz ekoizteari.

Ekoizte-prozesuko arazoetako asko saihesteko aukera ematen dio hidroponiak nekazariari, Iradak dioskunez; besteak beste —eta batez ere— lurra ez dago tratatu beharrik sustraiaiek infektatzen dituzten bakterioei eta onddoei aurre egiteko. Nekazariek lurra nola tratatzen duten ere azpimarratu du Iradak: *«Nekazari asko ez dira ohartzen zein suntsitzaileak eta kutsatzaileak diren intsektizidak eta produktu kimikoak lurarentzat, lurpeko urarentzat eta ingurumenarentzat, eta zenbateko kaltea egiten dioten mundu mailako beroketaren aurkako borrokari».*

Israelen blokeoa dela eta, bestalde, ezin ditu eskuratu Iradak teknika hori garatzeko behar dituen materialetako asko, haiek Gazan sartzeko baimenik ez baitaie ematen. Nolanahi dela ere, Iradak gaintitzen ditu

—nola edo hala— oztopo horiek: *«Ezin izan nituen aurkitu haziak landatzeko sare-loreontziak».* Saredun jardinerak dira sare-loreontziak, non alboetatik eta hondotik hazten baitira sustraiaiek eta uretara iristen. Arazo hori gaintitzeko, katilu arruntetan zuloak egin zituen Iradak, haziak kanporantz hel zitezen. Dena dela, Gazako elektrizitate-hornidura eskasa da proiektuaren oztopo nagusia: *«Etengabe behar du elektrizitatea proiektuak, ur-ponpei funtzionarazteko».*

Zenbait asmo ditu Iradak etorkizunerako: hidroponiaz gehiago ikastea eta bere esperientzia beste batzuekin partekatzea, Gazako herritar guztiek haren onurez gozatu eta nekazaritza-alorrean dituzten arazoak gainti ditzaten.



© Ahmad Abu Kmail, Ayazkia



A woman wearing a light-colored hijab is focused on taking a photograph with a Canon DSLR camera. She is holding the camera with both hands, and the lens is pointed towards the viewer. The background is blurred, showing other people in a crowd. The entire image has a purple tint. The text 'EMAKUME EKINTZAILEAK ETA BERRITZAILEAK' is overlaid in large, white, bold, sans-serif capital letters at the bottom left.

**EMAKUME
EKINTZAILEAK ETA
BERRITZAILEAK**

BIZITZA- HISTORIAK

EMAKUME EKINTZAILEAK ETA BERRITZAILEAK

Palestinako lurralde okupatuetako **emakumeen enpleguarentzat** oztopo larriak dira Israelen okupazioa eta blokeoa. Batek bestera joateko askatasunaren aurka-ko murrizketek izugarri eragin kaltegarria dute lan-merkatuan, batez ere Gazan, non ikaragarri altuak baitira langabezia-tasak. Emakumeei dagokionez, berriz, emakume izate hutsagatik jasaten duten diskriminazioa ere gehitu behar zaio lan-merkatuan pairatzen dutenari. Emakumeen ikasketamaila gizonena baino handiagoa da (emakumeen % 47,8k dituzte bigarren

mailako edo goi-mailako ikasketak; gizonen artean, berriz, % 41,4 da portzentaia), baina lan-merkatuan lau aldiz handiagoa da gizonen partaidetza emakumeena baino. Gauza bera gertatzen da langabeziari dagokionez, zeinak batez ere emakumeei eragiten baitie, gazteei batik bat.²

Hala eta guztiz ere, **emakume askok kooperatibak sortzen dituzte**, eta **ekintzailetza-proiektuak edo gizarte-ekimenak** jartzen dituzte martxan, diru-iturri bat izateko eta gizonen esku egon ohi den eremu horretan leku bat izateko.

² Palestinian Central Bureau of Statistics (PCBS), 2020. Hemen irakur daiteke: <https://www.pcbs.gov.ps/Downloads/book2586.pdf>



www.mindnola.org.uk

AYA AL-ABBASI

Egilea: Duha Hmeidan

«Ezin izan nuen dokumentatu eszena hori, baina neure begiez ikusi nuen: aita bat, seme txikia eskutik helduta daramala, Israelgo epaitegi batean sartzen, bere etxera itzultzeko ebazpen bat jasotzeko itxaropenaz. Mingarria da umea negarrez ikustea. Nekatuta dago, ez du ulertzen zer gertatzen den, eta nahi duen gauza bakarra zera da: etxera itzuli, deskantsatzera. Ez daki, baina, bere adineko umeak ezin direla itzuli: etxea eraitsi egingo dute, edo lekuz aldatu beharko dute etxekoek. Etxeak zutik irauteko esperantza handirik ez dago».

Horra Aya al-Abbasi ekintzaileak kontatzen duen eszenetako bat, Jerusalemeko herri-tar palestinarren eguneroko bizimoduari buruzko dokumental bat egiten ari zen bitartean jaso. *«Iristen da une bat non jada ez baitzara gauza argazki gehiago egiteko, aurrean duzun giza egoerak beste mundu batera eramaten baitzaitu, non galdera hau egiten baitiozu zeure buruari: behingoz, si- netsiko ote dio munduak palestinar bati? Haurren alde jartzen zara haren malkoak ikustean, etxera itzultzea beste asmorik ez baitu umeak».*

Hogeita hamar urte ditu Aya Al-Abbasik, eta bizitzeko gogoz eta kemenez gainezka dago. Silwanen jaioa da, eta Jabal Muka- berren bizi da, Jerusalemen. YouTuberako eta beste sare sozial batzuetarako edukiak sortzen jarduten da batez ere. Gai sozialak eta humanitarioak dira nagusi bere edukie- tan, eta Palestinako egoera zenbait hizkun- tzatan azaltzen saiatzen da, batez ere ara- bieraz, ingelesez eta hindiz, betiere kutsu positiboa erantsita.

2010ean hasi zen lanean, Interneterako edukiak sortzen, eta ez zituen errazak izan hastapenak. Gizartearen babesik ez zuen

jaso Ayak, eta kritika ugari egin zizkioten. Familiak, ordea, babestu egin zuen, bai eta dokumentalak egiten lagundu ere. Hasie- ran, gai sozialak jorratzen zituen; gero, bere esperientzia propioak kontatu zituen, eta proiektua garatu ahala, hedabideek era- kusten ez dituzten gai humanitarioak hasi zen jorratzen, Mendebaldeko herrialdee- tan Palestinari buruzko informazio hobea ematearren.

"Palestinarra naiz, eta garrantzitsua da niretzat erreferentziazko emakumea izatea sare sozialetan".

Ahalegindu zen Aya politikatik aparte edu- kitzen bere lanaren edukiak, baina Pales- tinako egoera sare sozialetan erakusten duenez, galdera asko egiten dizkiote. *«Beti joan izan naiz Al-Aqsako meskitara, kamera eskuan, eguneroko bizitzaren eszena batzuk filmatzera, baina okupazio-indarrek kendu egin dizkirate kamerak, zer filmatzen nuen begiratu, edo SD txartela konfiskatu. Bestalde (...), Interneteko bilaketa-motorrak oso sen- tikorrak dira Palestinarekin lotura duen edo- zerekiko. Zer hitz erabili ongi hautatu behar du eduki-sortzaile bakoitzak, eta ahalik eta modurik onenean adierazi bere mezua. Zen- bait lehiaketatara iritsi ziren nire lanak, eta Istanbuluko Zinemaldian ikusgai jarri zuten nazioarteko film batean ere hartu nuen par- te. Hiri Santuari buruzkoa zen filma, pertsona arrunten gaineko istorio xumeak kontatzen zituena. Ikusle asko izan zituen filmak, eta hizkuntza askotara itzuli zuten».*

«Palestinarra naiz, eta garrantzitsua da nire- tzat erreferentziazko emakumea izatea sare

sozialetan. Baina kontua ez da —soilik— emakumea izatea: palestinar bakoitzari dagokio Palestinako zenbait belaunalditako jendearen benetako ahotsa honen bidez zabaltzea mundu osoan. Edozein egoera edo bidaia aprobeztatzen dut Palestinaz hitz egiteko. Palestinako emakumeok ez dugu okupazioa edozertarako oztopo gisa hartu behar; aurrera jo behar dugu, Israelen erasoan berri zabaldu, okupatzaileei aurre egin eta gure lurraren eta bizitzaren jabe izateko eskubidea dugula erakutsi».

Garrantzi handia izan zuten boluntario-tza-erakundeek Aya al-Abbasiren nortasun-erakuntzan. Ayaren iritziz, hau da boluntariotzaren helburu nagusia: benetako gizatasunera itzultzea, non interes pertsonalen ordeztasun onura baita garrantzizkoena. Horregatik ekin zion Ayak boluntario-lanari, eta lan egiten zuen boluntariotza-elkarteen istorioak zabaldu zituen. *«Boluntario jardun nintzen Dar al-Sadaqa izeneko erakundearekin, eta hau zen gure eginkizuna: Israelgo polizia atxilotutako ikasleak artatzea, atxilotze-garaian jasandako lesioengatik ezgaitasun iraunkorrek dituztenak eta. Zenbait ahulgune dituzte erakunde horiek euren istorioak munduari azaltzeko; besteak beste, ez dute ingelesez menderatzen. Oso pozik nago, beraz, haien kontakizunak eta errealitateak gizalegeaz plazaratu izanaz».*

Bestalde, lau hizkuntza baino gehiago ikasi ditu Aya al-Abbasik bere kabuz, Internetez, bere ahizpekin egindako apustu bat zela tarteko. Hala, bada, hindia, korearra, ingeleza, punjabiera eta turkiera ikasi zituen, eta YouTubeko bere kanalaren bidez hizkuntza horietan zabaltzen zuen Palestinari buruzko informazioa. *«Ikasi nituen hizkuntzetan Palestinaren kausaren berri emateko edukiak sortzen nituen, batez ere hindi hizkuntzan».*

Edukiak sortu ahala, honetaz ohartu zen: Indiako herritarrek, adibidez, ez zekitela ondo zer gertatzen zen Palestinan. Honenbestez, hindiz bideo labur eta sinplifikatuak egiten hasi zen. Bideo haiei esker, indiar herritarrak Ayarekin harremanetan jartzen hasi ziren. *«Gazte indiar bat nirekin harremanetan jarri zen. Esan zidan nire bideoetan ikusi zuela zer gertatzen zen palestinarren eta israeldarren artean; geroago, nirekin harremanetan jarri eta zera azaldu zidan, gaiari buruz irakurtzen hasi zela, egiaren bila, nire bideoen eraginez. Asko pozten naiz nire edukiek inpaktu positiboa eragin izanaz, txikia bada ere, eta norbait irakurtzera eta egia bilatzera bultzatu izanaz».*

Berrikitan, palestinarren janzkerari eta erre-
fuxiatuen auzo eta herrietako egoerari buruzko «Hemen dago Palestina» proiektua jarri du martxan Ayak, non eskualde bakoitzeko janzkiak soinean dituztela egiten baitizkie Ayak argazkiak neska palestinarekin. Leku bakoitzaren gaineko informazio zehatza gehitzen dio Ayak proiektuaren dokumentazioari: zer gertatu zitzaizen etxetik eta haietan bizi zirenei lekualdatzearen ondoren, nolako harremanak zituzten eskualdeko israeldarrekin, eta abar. Besteak beste, Ein Karme eta Sataf izeneko lekuei buruzko informazioa jaso du.

«Asko lagundu zidan familiak proiektu honetan; nire ahizpetako batek, adibidez, pertsonaia antzezpenarekin laguntzen dit. Oso ezaugarria da proiektuarekin sareetan».

Jabal al-Mukabber auzoan bizi da Aya, «Jerusalemgo urrezko bista» delakoan. Al-Aqsako meskita angelu oso eder batetik ikusten da Jabar al-Mukabberretik. Hori dela eta, nabarmen zabaldu dira inguru horretara israeldar kokaguneak, etxebizitza

tzak konfiskatuz edo eraitsiz. «Zer lortu nahi duen Israelek Jabal al-Bakkerren eta beste auzo batzuetan etxeak etengabe eraitsiz? Bada, leku horretatik alde egitera bultzatu nahi ditu palestinarrak, hartara mendialdea errazago kontrolatuko bailuke. Pozten naiz jendea horretaz ohartzea, eta ikusten dudan eraipen edo etxe-huste bakoitzean bere lur-rari tinko atxikitzen zaizkio bertakoak».

«Gure lurrak ere konfiskatu egin zituzten, eta ingurune eta kokagune oso berezi batean hazi nintzen. Gogoan dut gure osaba abokatu, bizitza osoa eman baitzuen Israelgo auzitegietan, lurra berreskuratzeko gure esku-bidearen alde borrokan. Bihotzetik hurbilen duzun horri egiten diote eraso. Zalantzarik gabe zurea den lur batean zabilta, baina ezin duzu haren jabe izan, ezin duzu han inbertitu. Horregatik azaldu nahi diot egoera hori munduari, legezko agirien bidez ikus

dezan jendeak belaunaldiz belaunaldi izan garela lur honen jabeak. Nire ustean, egokiro eta bake bidez ari naiz azaltzen gure egoera».

Bere inguruko gertaeren berri ematen jarraitu nahi du Ayak, nahiz eta Israelgo indar armatuek gogor jazartzen dituen bera eta beste eduki-sortzaile batzuk. «Gogorra da egunero etxetik irtetea, jakinik armen mehatxupearan zaudela, pentsatuz hurrengoia zu izan zaitezkeela, agian zure etxea izango dela eraitsiko duten hurrengoia... Ohitu egin gara hori guztia jasatera, eguneroko krimen horietara, bizitzaren errutina bat balitz bezala. Beren lur-rari eusteko palestinarrak duten irmotasuna eta sendotasuna berez dira defentsa-metodo bat (...). Jerusalemeko eta Palestinako biztanleentzat ez dago ez ihesbiderik, ez babesik Palestinatik kanpo, Palestinan bertan baizik».



© Mohammad Nofal Aygazia



© Michael Bhar, Angazkia

MONALEEZA ISMAIL YASSIN AL-MASRI

Egilea: Haneen Harara

Jaffakoa da izatez Monaleeza Ismail Yassin Al-Masri errefuxiatu palestinarra, eta abokatu ekintzailea, zuzenbiderako sortutako App Faraman teknologia —berak sortua— lehenbizikoz erabili duena.

«Graduatu nintzenean, arazoak izan nituen informazioa eskuratzeko. Emakumeen arazoan gaineko trebakuntza jaso nuen, eta esleitu zidaten lanean alor horretako legeak aztertu behar nituen. Gogor egin behar izan nuen lan bereziki emakumeei eragiten diguten legeen inguruko informazioa biltzeko. Liburutegira joaten nintzen informazio bila. Lan neketsua zen, denbora asko jaten zuena; izan ere, bizpahiru aste ematen nituen kalkuluen arabera egun batean edo bitan egin zitekeen bilaketa egiten. Egoera hark bultzatuta sortu nuen aplikazioa».

Prozesu luzea eta nekagarria da metodo tradizionalen bidez informazio juridikoa bilatzea —liburuetan, adibidez—; aplikazio mugikorrek, berriz, aukera ematen du informazioa nonahi eskuratzeko. Sei hilabete eman ditu Monaleezak aplikazioa sortzeko behar zuen informazioa iturri fidagarrietan biltzeko.

«Ez da erraza zuzenbidearen alorrean ikastea eta lan egitea, asko jakin behar baita arauak eta prozedurak, batez ere Palestinako legeak. Gogoratu, beraz, zama astuna dela abokatu bakoitzarentzat lege-informazioa bilatzea, baita zuzenbidez arduratzen direnentzat edo euren eskubideez gehiago jakin behar dutenentzat ere; tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzat, esate baterako. Horregatik sortu nituen webgunea eta Faraman aplikazioa».

Hona aplikazioaren helburua: aukera eskaintzea ikertzaileari lege, aurrekari, eredu, kontratu eta liburu guztiak aurkitzeko eta Gazako zerrendan eskura ezin daitezkeen liburuak irakurtzeko.

"Gogor egin behar izan nuen lan emakumeei eragiten diguten legeen inguruko informazioa biltzeko".

«Hedabideen munduan ari den ahizpa bat dut, Human Rights agentziako kazetaria. Faramanen bidez jaso ohi zuen ahizpak bere lanerako behar zuen lege-informazioa; izan ere, ondo ezagutu behar ditu arauak eta legeak, benetako istorioak nahasbiderik gabe azaltzeko. Zalantza asko dituzte palestinarrek lege-gaiak direla eta, ez baitira lege berak aplikatzen Zisjordanian eta Gazan; bestalde, aldaketarik ere egon da, eta batzuetan ez dago argi zer lege aplikatu behar den lurralde bakoitzean. Hori dela eta, zaila da informazioa bilatzeko prozesua. Hain zuzen ere, arazo hori konpontzeko sortu zen Faraman».

Ezagutzak indarra ematen du: legeak ezagutzen badituzu, badakizu non zauden. Legeak eta prozedurak ez ezagutzea kaltegarria da jendearentzat, bai alor ekonomikoan, bai pertsonalean, eta ez da berreskuratzen galtzen den hori.

Informazio juridikoa eskuratzeko laguntzen duen webgunea eta aplikazioa da Faraman; Palestinan aplikagarri diren legeak azaltzen


ditu, eta liburutegi juridiko zabala du, non aurrekariak, kontratu-inprimakiak, demandak, lege arabiarak eta nazioarteko hitzarmenak baitaude irakurgai, juristek eta zuzenbide-ikasleek zein -fakultateek aise eskura dezaten informazio hori, gutxiago nekatuz eta diru gutxiago gastatuz. Horrez gain, erregistroari eta lege-betekizunei buruzko aholkularitza eskaintzen die enpresei, eta kontratu bereziak egiteko aukera.

«Abokatu askok ez daukate bulego propio-rik, egoera ekonomikoa dela eta denek ez baitaukate horretarako adina baliabide, eta aplikazio horretara jotzen dute kontsultak egiteko».

Bestalde, baliabide urriko emakumeei doako aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen espezializatu da Faraman, euren eskubideen alde borrokatzeko behar duten informazioa jaso ahal dezaten.

Gazako emakumeek pairatzen dituzten indarkeria psikologiko eta sozialen artean, aipatzekoak dira dibortzio batzuk non senarrak hau exijitzen baitio emazteari: uko egiteko dirulaguntzarik jasotzeari eta aurrezkiak eskuratzeari; beste kasu batzuetan, berriz, seme-alaben zaintzari uko egiteko. Sufrimendua sailhestu eta dibortziatu ahal izateko, emakume askok egiten diete uko beren eskubideei, halabeharrez. Legeak ez du agintzen dibortziateko ezeri uko egitea, baina sarritan berandu eskatzen da legearen babesa, jada ezer egin ezin denean. Kasu batzuetan, badago aukerarik demanda bat aurkezteko, baldin eta seme-alabak adinez nagusiak badira eta amaren zaintzapean badaude; horrelakoetan, amari itzultzea eskatzen dugu.

«Abokatua izaki, genero-indarkeriazko kasu asko egokitu zaizkit. Hain justu ere, esperimentzia hori izan zen arrazoi nagusia horrelako egoerak jasaten dituzten emakumeei



© Michael Bhar Arqash



© Michael Bhar, Argakia

laguntzea erabakitzeko. Maiz ikusten ditut lotsa- eta nahasmen-begiradak emakumeen aurpegietan giza eskubideen aldeko erakundeetara jotzen dutenean. Kontrolatuak eta jazarriak sentitzen dira, eta pribatutasunik ez dutela iruditzen zaie. Hala, bada, aplikazio bat eta webgune bat sortu nituen, gizartean aldaketa eragin eta emakumeak hezteko, senarrarekin edo gurasoeekin zitzuten arazoen-gatik euren buruarekiko konfiantza galdu ondoren konfiantza berreskuratu eta diru aldetik ahaldundu zitezen».

Emakume horiei euren eskubideak aldarri-ka ditzaketela jakinaraztea da Monaleeza-

ren asmoa, eta bere buruarekiko konfiantza areagotzen laguntzen die. «Emakume horietako askok badakite palestinar brodatuak egiten eta antigoaleko gauzak zaharberritzen; beraz, ekimen boluntario bat jarri nuen martxan, lehengaiak izan zitzaten. Blokeoa dela eta arazoak ditugunez Palesti-nako eta kanpoko bezeroei gure produktuak helarazteko, onlineko denda bat sortu dugu, aplikazio baten bidez, salerosketa errazteko. Alor horri buruzko nire ezagutza teknikoak urriak izaki, desafio handia izan zen niretzat aplikazio berria hutsetik egitea, baina hala ere ari gara martxan jartzen».



© UNRWA, Angazika

SABHA ALNABAHEIN

Egilea: UNRWA

1950ean sortu zen kalitateko brodatuak egiteko Sulafa proiektua, Gazan, UNRWArekin³. Bertako 350 bat artisauri laguntzen die proiektuak, brodatu tradizionalen eta gaur egungoen eskariak eginez. Sulafaren produktuak erosten badira, familia mantentzeko moduan izaten dira emakume horiek. Gogora dezagun diru-iturri bakarra horixe dutela familia askok.

Gazako errefuxiatu palestinarra dugu Sabha Alnabahein. Bost seme-alaba ditu, eta bederatzi kideko familia batez ardurtzen da, tartean direla gurasoak (85na urte), ilobak eta haien seme-alabak. *«Amianto egindako bi gelako etxe miserable batean bizi naiz. Langabezian dago nire senar ohia, eta ezin ditu mantendu gure umeak; nire gurasoak, berriz, zaharrak dira. Brodatzea dut diru-iturri bakarra».*

Emakumeek etxean bertan lan egin dezaketenez, aukera ematen die Sulafak zaintza-ardurak eta lana kontziliatzeko, eta seme-alabek bizimodu hobea izan dezaten diru-sarrera bermatzeko. *«Oso aukera ona da niretzat Sulafan lan egitea, nire guraso zaharrak eta seme-alaba txikiak zaintzeko aukera ez ezik diru-sarrera ere bermatua baitut».*

Bizimodua aurrera ateratzeko bide bat baino zerbait gehiago da Sulafa. Palestinar brodatuaren tradizioari eta kulturari eusteko modu bat da, eta jakintza hori belaunaldiz belaunaldi ezagutarazteko aukera. Soine-

ko, bufanda, buruko eta beste jantzi askotan brodatzen dira Palestinako herrietako bizitza deskribatzen duten istorioak; beraz, Palestinako ondarea zaintzeko eta azaltzeko modu bat dira brodatuak.

«Duela 16 urte, unibertsitateko lehen seihilekoko ikasketak egiten ari nintzen, eta tasak ezin ordaindurik geratu nintzen, gure familiak ez baitzeukan jada inongo diru-sarrerarik. Auzoko jendearentzat gure amak egiten zituen brodatuei erreparatu, eta ni ere lan erraz batzuk egiten hasi nintzen. Orain, Sulafan lanean eta trebatzen 16 urte eman ondoren, diseinatzailea naiz. Brodatu-patroi berriak egiten ditut, bakarrak».

"Sulafa palestinar brodatuaren tradizioari eta kulturari eusteko modu bat da".

UNRWari eta mundu osoko zenbait laguntzaileri esker, Gazako emakumeen sormena erakusteko aukera eskaintzen du Sulafak. Herri bakoitzeko emakumeen egoitzan ematen zaie trebakuntza eta materiala, etxean lan egin dezaten. Produktuen edertasunak adierazten du emakume horien trebetasuna eta erresistentzia.

³ Informazio gehiago, hemen: <https://sulafa.unrwa.org>



**HEZKUNTZAREN
BIDEZ AURRERA
EGITEN**

BIZITZA- HISTORIAK

HEZKUNTZAREN BIDEZ AUERRERA EGITEN

Hezkuntza da gauzarik garrantzitsuenena. Baina izugarri zaila da Palestinako lurralde okupatuetan kalitateko hezkuntza bermatzea, haur eta gazte palestinarren bizi-baldintza gogorak direla eta. Zisjordanian, ikastetxera joateko neska-mutikoei egin behar duten ibilbidea da kezka-iturri nagusia. Izan ere, toki askotan soldaduak eta kontrol militarrek jasan behar izaten dituzte, edo kolono judutarren kokaguneetatik hurbil igaro. Gazan, berriz, oso maiz nabarmentzen dira gatazka armatuaren ondorioak.

Bestalde, askotan Palestinako haurrak eta neskak ez dituzte gai ikusten ikasketetarako eta lanbide-heziketarako, bizi diren gizartearen rol-banaketa dela medio: etxe barruan emakumei omen dagozkien zaintza- eta erreproduzio-lanetarako ez omen dute ikasketarik behar. Are latzagoa

bilakatzen da auzia emakumeek eta neskek beste urrats bat eman eta hezkuntza profesionalari eta espezializatuari ekiten badiote.

Testuinguru horretan, garrantzi handia du UNRWaren hezkuntza-programak, irakaskuntzako lehen etapak ez ezik lanbide-heziketa ere eskaintzen baitie gazteei, lan-merkatuan aritzeko trebetasun osagarriak eskura ditzaten.

Guztira 332.528 ikasleri ematen diete eskola Palestinako lurralde okupatuetakoko UNRWaren ikastetxeek; lanbide-heziketako lau eskolek (bi Gazan, bi Zisjordanian), berriz, 3.022 ikasle dituzte matrikulatuta, eta 607 Hezkuntza Zientzietako Fakultateak⁴.

Hurrengo istorio hauetan, zenbait borroken berri emango dizuegu, guztiak ere ardatz bera dutenak: hezkuntza.

4 UNRWA in figures, 2020 -2021. Hemen dago irakurgai: <https://www.unrwa.org/resources/about-unrwa/unrwa-figures-2020-2021>

BAYAN SAWALMA

Egilea: Duha Hmeidan



«Pertsona batek ez du zertan arrakasta izan bizitzako etapa guztietan. Institutu-garaiko nire porrotak zuzeneko lotura du gaur egun naizen honekin; porrot egin izan ez banu, ez nukeen aurkituko argazkigintza eta muntaiarekiko dudak maitasuna eta alor horretan nire burua garatzeko grina».

Hitz horiekin azaldu digu Bayan Sawal-mehk UNRWaren emakumeentzako Ramallahko lanbide-heziketako eskolan, Women's Traing Centerren, argazkigintza, muntaia eta zuzendaritza ikasten egindako bidea. Izatez Jaffakoa den errefuxiatu palestinar honek ez zuen lortu bigarren mailako eskolan kazetaritza ikasteko adinako notarik, eta horregatik hautatu zuen argazkigintza.

«Porrotei aurre egiten irakatsi zidan unibertsitateak, eta neure buruan konfiantza izaten. Ikasketak amaitzeko aukera eskaini zidan, Palestinako unibertsitate askok ateak ixten zizkidatenean. Nire espezialitatea maitatzen erakutsi zidan. Irakasleek beti babestu eta animatu ninduten, beti onena emateko gai nintzela ikusi baitzuten».

Bere grinari zor dio Bayanek arrakasta, eta ikasten jarraitzera bultzatu zuen emakumeentzako Lanbide Heziketako Ikastetxearen laguntzari. Ikastetxe horretan diploma bat eskuratu ondoren, Palestinako Unibertsitate Teknikora jo zuen, argazki-zuzendaritzako ikasketak egitera.

«Zuzendaritza ikasten ari nintzela, argazki-eta publizitate-enpresa bat bisitatu nuen; unibertsitateak, berriz, enpresa horretan lan egin zezaketen ikasle trebatuen izenak emateko eskatu zien irakasleei. Hautatu egin ninduten, eta lanerako elkarriketarako garbi esan nien ez nituela menderatzen es-

katzen zituzten trebetasun guztiak, baina esperientziaren eta porrotaren bidez ikasten nuela. Hala, bada, lan bat lortu nuen ikasten jarraitzen nuen bitartean. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta asko ikasi nuen publizitateaz eta diseinuaz. Oso baliagarriak izan zitzaizkidan argazkigintza- eta zuzendaritza-ikasketak lana ahalik eta ondoena egiteko».

"Askok ez dute onartzen emakumeek kamera bizkarrean hartu eta filmak egitea".

Lana bazuen arren, ikasten jarraitu zuen Bayanek, gustukoa duen alor horri buruzko ezagutza areagotzen. Bright Imagen enpresan lanean ari zela, zinema-produkzio eta -zuzendaritzako diploma eskuratu zuen Jordaniako Roya TV-n (Amman). Beste urrats bat eman zuen, bada, arrakastaren eta garapenaren bidean; izan ere, Jordanian ikasten ari zen bitartean, urrutitik lanean segitzen zuen. Zinema-zuzendaritza ere ikasi zuen Jordanian, Alaa Hamdan zinemagile jordaniarren eskutik.

Jordaniatik itzuli zenean, Muntaia eta Zuzendaritza Saileko irakasle jarduteko kontratatu zuen bere unibertsitateak, ikasleak gainbegiratu eta presta zitzaizkan, bere ibilbide profesionalean metatutako esperientziaz baliatuz. Zoriturik, galdu egin zuen lan hori, COVID-19aren eragina zela medio.

Orain, enpresa pribatu bat sortu nahi du Bayanek, produkzio-, argazkigintza- eta zuzendaritza-gai guztiez arduratzeko. «Bardakit zaila dela Palestinan lana aurkitzea;

horregatik, enpresa bat sortu nahi dut gazte graduatu berrientzat, sinesten baitut haiengan eta haien ahalmenetan eta aukera hobek eskaini nahi baitizkiet».

Gizartearen eta ingurune hurbilenaren onespenerari dagokionez, aitortzen du gauzak ez direla beti bide onetik ibili. «Nire ibilbidearen hasieran, aitak ez zuen begi onez ikusten nire hautua, eta Palestinako aita orok bezala, alaba ingeniaria edo medikua izatea nahi zuen (...). Gogor borrokatu nintzen aita konbentzitzeko, ikusarazteko hau dudala gustuko espezialitatea. Geroago, gurasoek nire errendimendu akademiko ona ikusi zutenean, onartu egin zuten nire erabakia eta lagundu egin zidaten bide horretatik jarraitzen. Gainerako senideei dagokienez, berriaz, askok ez dute onartzen emakumeek kamera bizkarrean hartu eta filmak egitea, 2022an gauden arren (...). Kritika asko entzun nituen, baina gurasoak euren alabaz harro baldin badaude eta nik gustura egiten badut lan, ez dio axola gizarteak nire bidaiak, lanak eta espezializazioa onartzen dituen ala ez».

Etorkizunean, okupazioari eta hark palestinarren bizimoduan dituen ondorioei buruzko filmak egin nahi lituzke Bayanek.

«Okupaziopean bizi den herrialde bat garenaz, nazioarteari gure kausaren egia beste era batera erakutsiko dioten filmak ekoitzi nahi ditut. Zuzendari asko egin dira ezagunak mundu osoan beren inguruneke arazo sozialak azaltzen dituzten filmak ideia berritzaileekin eginez. Badakit Palestinako gizarteak ez duela oraindik film profesionalak egiteko behar den potentzial guztia, baina uste dut talde xume batek ere film bat egin dezakeela ideia on bat baldin badu. Zer falta den? Bada funtzionarioek eta erabakiak hartzen dituztenek kasu egitea beren herriari ekarpenak egiteko prest dagoen gazteria berriari. Baina arazoa konpontzea da ez da adinekoei bakarrik dagokien kontua. Guk ere, Nakbaren hirugarren belaunaldikook, geurekin daramagu Palestinaren kausa, eta historia osoa —eta egiazkoa— azaldu nahi diogu munduari. Gure seme-alabei ere jakinarazi nahi diegu egia».



التربوية

Ramallah Women
and...ion

وباعتباره أول
قد وضع المركز الأول
كز على تزويد الآلا

entre was e
men in the A
ucation, thus
needed to



© Mohammad Naji, Agazka

**WAFAA
KHATER**

Egilea: Duha Hmeidan

Irribarrez kontatu digu Wafaak bere istorioa, batez ere ikas zezan familiak eman zion laguntzaz mintzatzean. Izan ere, familiaren babesik gabe ez zituzkeen eskuratu-ko lorpen akademiko eta zientifiko horiek guztiak.

«Hamar laguneko sendia ginen, baina beti jaso nuen familiaren laguntza. Beti besarkatu ninduten, eta goi-mailako ikasketak amaitzera bultzatu, nahiz eta garai hartan neskek ezin zuten bakarrik bidaiatu ikastera».

Nekazari-familia xume batean jaio zen, Ein Sinia herrixkan, Ramallahtik mendebalde-
ra, 1948an Nakba lehertu eta ama Haifatik hara ihesi joan eta gero. *«Familiatik datorkit hezkuntzarekiko maitasuna. Ikastera bultzatu ninduten gurasoek, gogotsu gainera, eta oso lagungarri izan zitzaidan hori unibertsitatean iristeko».* Palestinan ez zegoenez fisikako gradu ondoko ikasketarik egiterik, familiak onartu egin zuen Waffa Norvegiara joatea eta han ikastea.

«Beste senide batzuek ez zuten oso begi onez ikusten emakumea izanik bakarrik bidaiatzea, baina familiak nire alde egin zuen eta ez zuten nire erabakiaren aurkako eragozpenik onartu». Egun, zientzia-alorrean Palestinan lan egiten duten emakumeetatik garrantzitsuenetakoa da. Palestinako Birzeiteko unibertsitatean —Ramallahtik gertu— eskuratu zuen Fisikako lizentziatura, eta beka bat irabazi zuen Norvegiako Bergeneko Unibertsitatean masterra egiteko. Ondoren, Partikulen Fisikako eta Kosmologiako doktoretza egin zuen.

Espezialitate hori ikasi duen Palestinako lehen emakumea izaki, ikasketak amaitu ondoren Birzeiteko Unibertsitatean hasi zen irakasle, eta Zientzia Fakultateko deka-

noa da. Ez zen erraza izan bidaiak aurreiritzi sozialei ez ezik, bisa eskuratzeko palestinarrek dituzten oztopoei ere egin behar izan baitzien aurre. Azkenik, lortu zuen Norvegian ikasteko eta bizitzeko bisa, baina egoera politikoa zela eta ezin zen urtero joan Palestinara familia ikustera 2000. urte-
tik aurrera, Intifada lehertuz geroztik. Doktoretza bukatutakoan bisitatu ahal izan zituen senideak, 2004an, lau urte haiek ikusi gabe eman ondoren.

*"Emakume gehiago nahi
nintzke irakaskuntzan, batez
ere gai zientifikoetan".*

«Norvegiatik itzuli eta unibertsitatean lanean hasi nintzenean, curriculumetik kanpoko zenbait jardura egiten saiatu nintzen, ikasleen artean ezagutza zientifikoa hedatzearen. Hona nire helburua: zientziaren alor honetan jardun nahi duten gizon eta emakume gazteak trebatzea, eremu horretako ikertzaille-belaunaldi bat sortzeko. Nazioarteko zenbait ikerketa-zentroekin elkarlanean aritzen gara; esate baterako, Italiako Fisika Teorikoko Nazioarteko Zentroarekin (ICTP), zeinaren xedea hau baita: natura-zientziak sustatzea garapen-bidean dauden gizarteetan; Palestinan, adibidez».

Fisikako saileko buru zelarik, zera proposatu zion Wafaak unibertsitateko dekanuari: astronomia-behatoki bat eraikitzea, Palestinako lehenbizikoa. *«Behatokia egin ondoren, beste gauza asko ere baditugu gaur egun: 16 hazbeteko teleskopio bat, planeta-
rioa, teleskopio eramangarriak eta eguzkia*



behatzeko teleskopio batzuk», diosku, harro asko.

Palestinan eta unibertsitatean astronomia sustatzen ahalegindu da Wafaa Khater, zientzia hori hastapenetan baitago oraindik inguru hartan. Jarduera eta ekitaldi astronomiko ugari antolatu ditu fakultateko ikasleentzat eta haien familientzat. Bestalde, asko lagundu die unibertsitateko bere ikasleei, eta astronomiako tresnak eta haien instalazio-metodoak erakutsi dizkie. Astronomia Kluba sortu zuen, eta hara bildu bere grina partekatzen duten jakintza-alor askotako zaleak. Klubeko kide izandako batzuek euren astronomia-elkarre propioak sortu dituzte, zientzia hori hedatzen jarraitzeko.

«Harro nago nire ikasleez eta astronomiarekiko duten maitasunaz; izan ere, autoikas-kuntzaren bidez metatu zuten esperientziari esker, astroen astroargazkigintza eta astronomiaren alorreko beste ezagutza batzuk menderatzera iritsi dira. Bertako gizartearen laguntzaz ere harro nago. Halako batean, emakume zahar bat etorri zen planetak ikustera, bere bilobekin; asko poztu ninduen, bestalde, gurasoak alabekin etortzeak. Izan ere, gizarte kontserbadore batean bizi gara, eta neskei ez zaie uzten berandu arte kalean egoten, baina ekitaldi astronomikoez etengabe zuten arau hori».

Baina Khater doktorearen lorpen bakarra ez da behatoki astronomikoa sortu izana. Asko lagundu die bere ikasleei, batez ere Palestinatik kanpoko unibertsitateetan

goi-mailako ikasketa osagarriak egiten. Garapen Bidean dauden Herrialdeetako Emakume Zientzialarien Erakundearen Palestinako ordezkaritza ere sortu zuen (OWSD, ingelesez). Britainia Handian du egoitza Nagusia erakundeak.

Gauza asko lortu ditu Wafaak, baina harrituta —eta frustratuta— geratu zen Palestinara itzultzean, urriak baitira alor horri dagokionez herrialde horretako ikerketa-ahalmenak, zientziaren aldetik gartuagoak diren beste herrialde batzuekin alderatuta. *«Emakume gehiago nahi nituzke irakaskuntzan, batez ere gai zientifikoetan, ni bainaiz emakume bakarra unibertsitateko Fisika Saileko irakasleen artean. Bestalde, Palestinako gizarteak ikerketa zientifikoari gehiago laguntzea nahi nuke, beste herrialde batzuetako unibertsitateekin lehiatu ahal daitezen gure ikerketa eta ekarpen zientifikoak. Zabaldu duen bide horretan urrats asko eman behar ko da oraindik ere, eta, zalantzarik gabe, handia izango da emakumeen esku-hartzea».*

iristeko, Palestinan oraindik ere bide luzea egin beharra baitago. Dena dela, uste dut nire gizartean jardun behar dudala, hura eraikitzen eta garatzen laguntzeko».

Tamalgarria deritzo Wafaak emakume gehiago ez aritzea sektore horretan: *«Emakume gehiago nahi nituzke irakaskuntzan, batez ere gai zientifikoetan, ni bainaiz emakume bakarra unibertsitateko Fisika Saileko irakasleen artean. Bestalde, Palestinako gizarteak ikerketa zientifikoari gehiago laguntzea nahi nuke, beste herrialde batzuetako unibertsitateekin lehiatu ahal daitezen gure ikerketa eta ekarpen zientifikoak. Zabaldu duen bide horretan urrats asko eman behar ko da oraindik ere, eta, zalantzarik gabe, handia izango da emakumeen esku-hartzea».*



© Mohammad Nofal, Argazia



© UNRWA, Amman

**FATIMA
KATASH**

Egilea: UNRWA

Ramallahtik zazpi kilometrora dago Jazoneko kanpamentua, non 15.000 bat errefuxiatu palestinar bizi baitira. Ramle eta Lyddia hirien inguruko zenbait herritakoak dira han dauden familiak. Kanpamentuaren aurrean, berriz, Beit-El kokagune israeldarra dago, etengabeko arrisku-iturria palestinarrentzat.

Kasu berezia izan da beti kanpamentu hori, ezin hobeto egokitu baitzaizkio hango biztanleak hiriaren hedapenari eta etxebizitzaren elkarrekiko hurbiltasunari. Dena den, arazorik handiena hau du: eskola eremu arriskutsu batean dagoela. Kale nagusi batean dago, baina Beit-Eleko kokagune israeldarretik oso gertu. Etengabeko arriskua eskolako neska-mutikoentzat.

«Etetik irtetea eta eskolara joatea sekulako erronka da niretzat. Izan ere, kanpamentuko etxeak elkarrengandik oso hurbil daude, eta luze egiten da eskolara oinez joatea. Gainera, gas negar-eragileak noiznahi jaurtitzen dituzte, eskolatik hurbileko eremuan soldaduekin izaten diren gatazkak direla eta. Korrika eta negar egitea, beste irtenbiderik ez dugu. Beldurtuta, izututa eta nekatuta iristen gara eskolara askotan, beti bonben mende egoteaz aspertuta. Sarritan, ahalegin berezia egiten dute irakasleek ikasleok baretzeko. Hala, bada, ezinezkoa zaigu ikastea eta eskolako lanak egitea izuak jota gauden une horietan».

Hitz horien bidez azaldu digu Fatima Kattash izeneko 14 urteko neska nolakoa egoerak pairatzen dituzten egunero kanpamentuko neska-mutikoen eskolarako bidean. Segurua behar luke izan ikaste-txeetarako bidea ikasle ororentzat, baina benetan zaila da neska-mutiko hauentzat,

eta ez die batere laguntzen bizimodu normala eramaten.

"Berdurtuta, izututa eta nekatuta iristen gara eskolara askotan".

«Agian ohitu egin naiz erronka horietara, baina zenbait neska eta mutiko garrasika eta negarrez hasten dira. Gogoan dut nola, hala-ko batean, eskolatik irteten ari ginela, armadako autoak guregana hurbildu eta bonba negar-eragileak jaurti zizkigutela. Korrika jo genuen eskolara, han babestera, baina soldadu israeldarrek eskola barrura ere bonba bat jaurti zuten. Izugarrizkoa izan zen neska-mutikoen izua eta negar-hotsa. Okerrena zera izan zen, gurpil-aulkian zegoen mutiko elbarri batek ezin izan zuela korrika alde egin soldaduek bonba jaurti zutenean. Gerora jakin nuen ito egingo zatekeela baldin eta paramedikoen osasun-etxe hurbilenara lehenbailehen eramanez izan ez balute.

UNRWAKo Ikasleen Parlamentuko kidea naiz, eta ikasleak lasaitzen lagundu behar nien irakasleei; neska-mutikoak ikasgeletan sartu, babesteko, eta bide seguruago batera eramanez, eskolako larrialdiko irteeratik».

Egoera hori dela eta nola sentitzen den galdetu diogu Fatimari, eta hau erantzun digu: bonben mehatxua ez ezik, Israelgo soldaduen jipoiak ere jasaten dituztela neska-mutikoen. *«Ez dut berehala ahaztuko egun jakin bat: umeak eskolatik gertuko mendi batean zeuden, eta soldaduak korrika joan ziren haiengana; jipoitu egin zituzten, eta batzuk, atxilotu. Ezin ditut ahantzi irudi horiek, ez eta umeen begiak ere, gasaren*

eraginez hainbeste negar eginda erabat gorrituak».

Ez da Fatima hori guztia ikusi eta pairatu zuen neska bakarra. Palestinako neska-mutiko guztiak dira tankera horretako erasoen lekuko, etengabeko kontua bihurtu baitira, ohikoa jada. Haurren eskubideak errespetatzea agintzen duten nazioarteko legeek ez diete batere segurtasunik bermatu Palestinako neska-mutikoei.

«Nire ametsa da jolas egitea, seguru eta libre ikastea eta mugitzea, eskolaren inguruko etengabeko liskarrek eragiten diguten beldurrik eta tentsiorik gabe bizitzea. Maiz sartzen dira soldaduak gure etxeetara, gauaren er-

dian, gu izutzearren. Atea txikitu, etxea hantkaz gora jarri, gu beldurtu... eta joan egiten dira».

Oztopoak gorabehera, ez dio utzi Fatimak amets egiteari eta bere zaletasuna praktikatzeari; marrazteari, alegia. Zirujaua izan nahi du Fatimak, eta asko laguntzen omen diote UNRWArek eskolako irakasleek.

«Zirujaua edo medikua izan nahi dut, okupatzaileen erasoek kaltetutako neska-mutiko guztiei tratamendu egokia emateko. Beldurtu eta jazarri egiten gaituzte gure aurkako etengabeko jokabide horiek, baina gu gara lur honen jabe eta beti defendatuko dugu, ez dugu alde egingo».



© UNRWA. Argazkia





NAKBA,
PALESTINAKO
ERREFUXIATUAK ETA
HONDAMENDIAREN
75. URTEURRENA

BIZITZA- HISTORIAK

NAKBA, PALESTINAKO ERREFUXIATUAK ETA HONDAMENDIAREN 75. URTEURRENA

1948ko maiatzaren 15ean hasi zen Palestinako herritarren exodoa. Egun hartan, errefuxiatu bilakatu ziren 700.000 palestinar. Nakba («hondamendia», arabieraz) deitzen diote zoritzarreko gertakari hari.

Eta 75 urte geroago, eskubiderik gabe jarraitzen dute Palestinako 5,7 milioi errefuxiatuk. Palestinako errefuxiatuek garpén-krisia eta ziurgabetasuna jasaten dute israeldarren okupazioa dela eta. Blokeoa, gatazkak, etengabeko indarkeria, etxe-eraiспенak eta egoera sozioekonomiko eskasa dira okupazioaren ondorioetako batzuk.

Entzun dezagun Nakba pairatu zuten emakume palestinarren ahotsa, haiek azaldu baitiete gertatutakoaren berri hurrengo belaunaldietakoei. Etxetik bota zituzten, bizibiderik eta ogibiderik gabe geratu, eta etxeko jende ahulena zaintzeko ardurara bizkarreratu zuten: umeak, adinekoak, gaixoak, mendekotasunen bat dutenak... Urte asko igaro arren, sakonak dira oraindik ere zauri psikologikoak eta emozionalak. Are handiagoak jakinik berriz ere errepikatzen ari dela desjabetze- eta lekualdatze-prozesu hori emakume askoren bizitzan, gatazka eta eraiспен behartuak direla medio.



MENWA RAYAN

Egilea: Duha Hmeidan

«Ama, anaia eta hirurok Lifako gure etxea ikustera joan ginenean, liluratu egin ninduen haren edertasunak; izan ere, 1940ko hamarkadako zen, baina oso-oso polita. Hamalau urte nituen orduan, eta jada ez ginen etxe hartan bizi, baina amak, artean, berea zela sentitzen zuen. Ikusi genuenean etxetik judu bat ari zela irteten, etsipenak erabat ilundu zuen amaren aurpegia. Etxe hartan gure bizitza nolakoa izango litzatekeen hasi ginen pentsatzen anaia eta biok: balkoietara igoko ginатеke, balkoitik balkoira egingo genuke solas eta jolas...».

Belaunaldiz belaunaldi amonek bilobei kontatzen dieten milaka istorioetako bat da. Kazetariok istorio horiek biltzen jarraitzen dugu, Nakba bizi izan zutenak elkarriketatzen, haien oroitzapenak gordetzen, bihotzak urratu zizkieten eta izugarri mindu zituzten gertakariak azaltzen.

Antzeko eszenak ikusten ziren familia palestinar bati etxea kentzen zioten bakoitzean. Kezka, oinaze eta etsipen bera adierazten zuten haien aurpegiek.

Menwa Rayanek 66 urte ditu, eta maiz deskribatzen du Lifta herri abandonatuan zegoen etxea. Amarekin etxea ikustera joan zeneko pasadizoak kontatu dizkigu, eta hara itzultzeko duen gogo (bere amets nagusia), bai eta lehenbiziko migrazioak eragin zion mina eta galera-sentsazioa ere.

Lifta herrian bizi zen Menwa andrearen familia, eta han hil zituen kolera gaitzak haren senide guztiak. Bakarrik geratu zen. Aita Amerikara maiz joaten zen, lanagatik, eta gogor saiatzen familiari bizimodu duna ematen. Aita Palestinara itzultzean, aurreztutako diruarekin etxe handi bat eraiki zuten Liftan. Jaffa kaletik hurbil zegoen

etxea, eta han bizi izan zen familia bi urtez, 1947an palestinarren eta israeldarren arteko gatazkak hasi ziren arte. Gatazka haie-tatik sortu zen arabiarren eta israeldarren arteko lehen gerra, eta orduan hasi zen okupazioa.

Familiagatik beldur zen aita, eta Ramallah-ra joan ziren bizitzera, Liftako egoera noiz baretuko. Aita bakarrik geratu zen etxean, eta beti ibiltzen zen batetik bestera, familiarekin egotearren eta, aldi berean, etxea babestu nahian.

"Galdu egin genuen etxea eta han zegoen guztia".

«Bi hirien artean bizi izan zen gure aita 1948ra arte; urte hartan, Liftako herritarrek ihes egin zuten hiritik, gerra zela eta. Hurrengo urteetan, gerra amaitzean etxera itzuliko ginela esaten zigun aitak. Igara dira jada 74 urte, baina gerra ez da baretu, eta ezin izan gara itzuli. Galdu egin genuen etxea eta han zegoen guztia; altzariak eramaterik ere ez genuen izan. Gogoan dut ama haserretu egin zela aitarekin, eta negar egiten zuela, tristuraren tristuraz, ezkontzako argazkia ere ez zuela jaso eta».

Etxearen eta lurren jabetza frogatzen duten paperak eta zergei dagozkienak gordetzea, ordea, lortu zuen aitak. Gordeta jarraitzen du dokumentazio horrek guztiak; egun, Menwaren anaia zaharra arduratzen da paperak zaintzeaz.

Hogei urte igaro ziren Menwa sortetxera itzuli zen arte, ama ondoan zuela.

«Hogei urte geroago, oso desberdina zen dena. Bidean gindoazela, harrituta begiratzzen zien amak kaleei eta eraikinei, baina Liftara heldu orduko hasi zen lekuak ezagutzen: izebaren etxea, halako fabrika zegoen lekua eta, azkenik, herriaren iparraldean, bere etxea. Biziki maite zuen etxe hura gure amak, eta beti kontatu izan dit haren eraikuntza-prozesua, harriz harri ikusi omen zuen eta. Kantuz eta festa-giroan ospatzen genuen solairu bakoitzaren amaiera, eraikitze-lanean lagundu zigutenekin batera. Gauean, gogokoena zuen balkoian esertzen zen ama, jendearen joan-etorria ikustera. Etxe ingurutik igarotzen ziren guztiak aho zabalik geratzen ziren haren edertasuna ikusirik».

Okupazioak, baina, ez zuen atsedenik hartu Liftan: 1967an —bigarren arabiar-israeldar gerraren ostean—, Israelen mende geratu zen Zisjordania, eta Nakbaren ondoren (1948an) babes bila hara joan ziren palestinar askok etxetik alde egin behar izan zuten berriro, bigarrenez. *«Gaztea nintzen Israelek Zisjordania bereganatu zuenean, eta izugarria zen okupazioa garai hartan. Seme-alabak genituen, eta okupazio hitza entzute hutsak izutu egiten gintuen. Zurrumurruek ziotenez, soldadu israeldarrak herririk herri zebiltzan, umeak sarraskituz. Herritar batzuek ihesari ekin zioten, beldurrak eraginda, eta gure aitak ere alde egiteko agindu zien nire neba-arrebei. Nire ahizpak, gurasoak eta ni, berriz, kobazulo batean ezkutatu ginen. Han geratu ginen gaua iritsi arte. Gero, isilpean, Ramallahko gure etxera itzuli ginen. Errezelak jarri genituen leiho guztietan, eta argi guztiak itzali, ikus ez gintzaten. Handik 20 egunera itzuli ziren nire nebak, egoera negargarrian. Jordaniara alde egin zuten, eta*

han hilabete batzuk eman ondoren bueltatu ziren, egoera pixka bat baretu eta okupazioa "normalizatu" zenean».

Egun, gorderik dauzka amak Liftako etxean zituen zenbait gauza; besteak beste, aulkiak, josteko makina eta bere gurasoen ezkontzako katiluak. *«Trebea zen ama brodatuak egiten eta, ezkondu aurretik, berak egiten zituen bere janzkiak eta tapakiak, eta gordeta dauzkat bere gauza guztiak, Liftako usain gozoa dariela».*

Israeldarrek zenbait kokagune eraiki nahi dituzte Liftan, proiektu turistikoak bultzatu eta luxuzko hotelak egiteko. Horretarako, eraitsi egin behar dituzte etxe zahar asko. 2004az geroztik ari dira hango biztanleak eta giza eskubideen aldeko elkarteak borroka esparru judizialek lantzen eraispenak eragozteko.

Palestinarren eta israeldarren arteko koalizio bat antolatu zen, etxeak, merkataritza-gune bat eta hotel bat egitea aurreikusten zuen garapen-planetatik babesteko herria. Palestinar batzuek herrira itzultzea dute amets; beste batzuek, berriz, Nakbaren oroigarri gisa mantendu nahi dute; koalizioa israeldarrek, azkenik, ondare arkeologikoa babestea dute xede. Liftako inor ere ezin da bizi herri horretan, baina zutik di-raute harrizko etxeek —eta haien arkudun ate eta leihoek—, bai eta herriko meskitaren hondakinek ere.

Sorlekuari tinko atxikitzen zaizkio palestinarrek, bizilekuz maiz aldatu arren, eta sortetxera itzultzea zaila bazaie ere, beti daude prest beren bizipenak belaualdiz belaualdi azaltzeko.

«Nire jatorriaz galdetzen didan orori eran-
tzungo diot Liftakoa naizela eta, zaila dela
jakinik ere, noizbait gurasoen etxean bizitzea
espero dudala. Askoz ere nahiago dut han
bizi munduko jauregirik onenean baino. Bi-
tartean, nire seme-alabei eta bilobei egoera-
ren irudi zuzena azaldu nahi diet».

«Neska-mutikoez ez dute ezer ahazten, zorio-
nez. Bahreinen bizi da nire biloba bat. Pales-
tinara ni ikustera etorri zenean, Liftara joan
nahi zuela esan zidan. Hara eraman nuen,
bada, eta txunditurik utzi zuen hango eder-
tasunak. Bere aitona-amonen lurra eta etxea

erakutsi nizkion, eta liluratuta geratu zen bi-
loba, oso ederrak baitira hango bazterrak».

«Nakbaren gertakariak bertatik bertara ikusi
zituen aurreko belaunaldiko jendeak. Haiek
hil ahala, ahaztu egingo dira historia eta le-
kukotasuna. Horregatik jarraitzen dugu guk
geure historia azaltzen, geure seme-alabei
eta bilobei kontatzen. Ez ditugu geure etxeak
ahazten; xehetasun osoz dauzkagu gordeak
geure oroimenean, giltzekin batera. Ez dugu
ahantzi behar bere herrietatik indarrez kan-
poratu zuten jendea».



© Mohammad Nofal, Argazkia



© Mohammad Nofal, Argazkia

NAIMA NAEL SHARAKAH

Egilea: Duha Hmeidan

Zerbait galdu dutenek bakarrik ezagutzen dute galera horren sumindura. Nola erreazionatuko genuke seme bat, alaba bat, senarra eta etxea —denak batera— galduko bagenitu? Munduko gainerako emakumeak ez bezalakoak ote Palestinakoak hori guztia jasateko? Zer ote da behartuta bost aldiz bizilekuz aldatu beharra? Galdera horiek egiten dizkio bere buruari Sharakah andreak. Egun abandonaturik dagoen Beit Nabala herrikoa da Sharakah errefuxiatu palestinarra, eta 75 urte ditu.

«Beit Nabala heritik bota gintuztenean, 1948an, bederatzi hilabete umea nintzen ni. Handik gertu dagoen Budrus herrian bost urte eman genituen; ondoren, Deir Abu Mishaalen beste bost urte. Horrela ibili ginen hamar urtez, noraezean eta alderrai; ez geneukan etxerik, baina joaten ginen herrietako jendeak gogoko zuen gure familia, eta guretzat bizilekuren bat aurkitzen saiatzen ziren. Deir Ammar herrira jo genuen gero. Palestinako errefuxiatuentzat etxeak egiten ari zen UNRWA herri hartan, eta gela bat eraiki zuten guretzat. Bederatzi lagun bizi izan ginen han».

Geroago, ezkondu egin zen Naima Nael, eta Jalazoneko kanpamentura joan zen bizitzera. Etxe bat erosi zuten han, eta seme bat eta alaba bat izan zituen. *«Nire senarren amak erosi zuen etxea, han bizi gintezen; gero, handitu, konpondu eta apaindu egin genuen, eta munduko etxerik ederrena zen, gure erresuma. Baina handik urte batzuetara eraitsi egin zuten etxea, eta hondakin bihurtu. Ez ginen luzaroan bizi izan etxe hartan».*

1987an, berriz, lehen Intifada lehertu zen. Hamabost urte zituen orduan semeak, eta okupazioari aurre egiten zioten beste gazte asko bezala, jazarri egin zuten eta etxetik

"Zer ote da behartuta bost aldiz bizilekuz aldatu beharra?"

kanpo egon zen zortzi hilabetez, atxilotu ez zezaten. *«Intifadaren garaian, zortzi hilabete etxetik kanpo eman zituen gure seme bakarrak, Naelek. Oso gaixorik jarri zen haren aita sasoi hartan, non okupazio-indarrak etengabe etortzen baitziren gurera. Egunero etortzen ziren etxera, semearen bila. Halako batean, etxetik kanpo zortzi hilabete zeramtzala, korrika etorri zen Nael, oinetakoak eta arropa garbia eskatzera. Harekin hizketan ari nintzela, aurpegia estalita zeraman gizonzko bat presaka pasatu zen etxe ondotik. Israelgo espioia zela susmatu nuen, eta alde egiteko esan nion Naeli, oihuka, ziur bainintzen espioiak salatu eta gau hartan atxilotu egingo zutela semea».*

«Gauaren erdian sartu ziren soldaduak etxera, eta semea aurkitu ez zutenez, amonaren etxera jo zuten, eta hantxe aurkitu. Lepotik heldu zioten, etxera ekarri zuten eta zera esan zioten nire senarrari: bazekitela gaixorik zegoela eta laster hilko zela. Aitari agur esateko aukera eman zioten espetxera eraman aurretik. Hasperen batez esan zion agur senarrak gure semeari. Ausarta izateko esan zion, eze-ren beldurrik ez izateko. Itzuli arte itxarongo ziola ere esan zion, libre zegoela ospatzeko. Nik, berriz, besarkada bat eman eta nire bihotzaren pozgarria bera nuela esan nion semeari. Gero, atxilotu eta eraman egin zuten. Gogoan dut Naelen haurtzaroa, nola aitak egunero neurtzen zuen haren altuera, zenbat hazi zen jakiteko, eta semea jada gatteturik ere ikusteko itxaropena bazuen, baina alferrik».

Etxea eraitsi ondoren, okupatzaileek ez ziguten utzi beste bat eraikitzen; horrenbestez, senarraren senideekin bizitzera joan ziren Naima eta Muhammad. Sasoi hartan, etxeratze-agindua ezarri zuen Israelgo agintaritzak; Muhammad oso gaixorik zegoen, eta Naimak urrutiko hirietatik —Betleemetik, besteak beste— ekartzen zizkion tratamendurako botikak, bidaiatzeko debekua hautsita. Behin baino gehiagotan zauritu zuten joan-etorri horietan. «*Betleemetik hurbil dagoen Beit Jala hirira nindoan, botika bila, eta, bat-batean, gas-bonba batek jo ninduen buruan. Konorterik gabe erori nintzen lurrera, eta Intifadako gazteek lagundu zidaten*».

Ez da erraza irmo irautea maite dituzunak eta etxea galdu ondoren: «*Soldaduek esan zigutenean etxea eraitsi egin behar genuela, arimarik gabe geratu banintz bezala sentitu nintzen, nigandik hurbil zebilela heriotza. Ez dago gauza latzagorik etxea indarrez utzi beharra baino. Sarritan aldatu gara bizilekuz bizitzan zehar. Umea nintzela, herrixka batetik bestera aldatzen ginen, israeldarren beldurrez; heldua nintzela, berriz, etxea eraitsi egin behar izan nuen, eta seme bakarra nola atxilotzen zuten ikusi. Penaz hil zen nire senarra, hainbeste denboraz semea ikusi ezinak lapurtu zion zoriontasuna*».



© Mohammad Nofal, Argazia





**EMAKUMEAK,
ARTEA ETA
KULTURA**

BIZITZA- HISTORIAK

EMAKUMEAK, ARTEA ETA KULTURA

Kulturak adierazten du zer garen, nondik gatozen eta zer jokabide dugun. Gogoratzeko eta partekatzeko aukera ematen digu, eta etxean sentitzekoa. Baita etxerik ez baduzu ere zu noiz itzuliko zain.

Palestinan, erresistentzia-mota bat da kultura, eta elementu erabakigarria, okupaziopean dagoen herria izaki. Zenbait alorretakoak dira Palestinako adierazpen kulturalak: musika, dantza, pintura, gastronomia, joskintza, moda eta abar. Eredu askotan diharduten kultura-elkarte ugari

daude Palestinako lurralde okupatuan: dantza, musika, artisautza, folklorea, zinema, literatura, antzerkia eta arte plastikoak.

Beti izan dute zaila Palestinako emakumeek kultura-alorrean jardutea, gizarteko ereku publikoari dagokion jarduera izaki. Baina, zorionez, emakume batzuek hautsi dituzte hesi horiek, arlo kultural zein artistikora eraman dituzte euren eskabideak. Kulturak hazkuntza-eremu unibertsala behar duela izan aldarrikatzen dute, eskuragarria emakume eta neskentzat ere.



© Ahmad Abu Knati, Argazia

**ABEER
JIBRIL**

Egilea: Amjad Shabat

«Patriarkatu sozialaren eta okupazioaren pean bizi dira Gazako zerrendako emakume palestinarrek, eta haien amesten duten askatasuna eta boterea islatzen ditu ballet-dantzariaren emanaldiak. Haien boterearen eta edertasunaren ikonoa da ballet-dantzaria».

Gazako zerrendan bizi den 37 urteko artista palestinar baten hitzak dira, Abeer Jibrilenak. Arte Ederrak ikasi zituen Jibrilek Gazako Unibertsitatean, eta zenbait artista palestinar izan zituen inspirazio-iturri; besteak beste, Mohammad Anan eta Suliman Mansor.

Ballet-dantzarien erretratuak dira haren lanaren ardatz. Azken proiekturako —*Black Note*— kolore beltza hautatu zuen, Gazako emakumeen egoera adierazten duela baiteritzo. Gazan bizi den emakume batena egiten du dantzariak obra horretan.

«Emakume eder eta libre gisa ikusten du munduak ballet-dantzaria». Paradoxa modura hautatu zuen Abeerrek arketipo hori, dantzariaren irudia —emakume librea— Palestinako emakumeen sufrimenduaren eta askatasunik ezaren adierazle baita. Beste arrazoi honegatik ere aukeratu zuen Abeerrek ikono hori: ballet-dantzariaren lan gogorra Gazako zerrendako bizimodu gogorrek uztartzearen.

Besteak beste, bonbak, hesi bat eta balak ageri dira Aberren erretratu batzuetan, okupazioa eta blokeoa direla medio emakumeek eta gizonek —baita neska-mutikoek ere— pairatzen duten indarkeriaren eta libreki mugitzeko debekuaren adierazle. Beste erretratu batzuetan, berriz, estalita ageri dira ballet-dantzarien ahoa eta begiak, patriarkatua salatzeke.

Abeerrek dio eskubideak urratzen zaizkietela Gazako zerrendako emakume askori. *«Emakume askori ukatzen zaie hezkuntzarako eskubidea. Bestalde, emakume askok indarkeria jasaten dute. Batzuei, berriz, pentsatzen dutena esateko eskubidea ere ukatzen zaie».* Horregatik, bere lanaren bidez Gazako emakumeen sufrimendua azaltzen saiatzen da, bera ere emakumea izaki haien ahotsa izatea dagokiola baiteritzo.

"Emakume askori ukatzen zaie hezkuntzarako eskubidea"

Hasia da Gazako gizartea era askotako arte-motak onartzen, baina askok ez dute balioesten artea —batez ere emakumeek egina bada—, ez eta artistak ere. Beraz, gutxiak interpreta dezakete artearen mezua. *«Jende askok galdetzen dit zergatik jarraitzen dudan marrazten, erretratu bakar bat ere saltzen ez badut».* Marraztea da Aberren grina nagusia, bere buruaz eta inguruko jendeaz hitz egiteko erabiltzen duen tresna. Bestalde, Arte Ederrak irakasten ditu, neska-mutikoek euren sentimenduak adieraz ditzaten, bertako GKE-ekin elkarlanean.

Abeerren bizimodu pertsonalari ere eragiten dio Israelen azken 15 urteotako blokeoak, Gazaren aurkakoak: *«Blokeoa dela eta, ezin naiz atzerrira joan nire esperientzia artistikoa partekatzerara eta beste batzuek gandik ikastera».* Oso garrantzitsua da artistentzat esperientzia-trukea; hori dela eta, sare sozialez eta teknologiaz baliatzen da Abeer israeldarren oztopoak gainditu eta azken teknika artistikoen berri jasotzeko.

Bi mutikoren eta neska baten ama da Abeer, eta seme-alaben etorkizuna zaila izango delakoan dago. Ama guztiek beza-la, bere umeeak berak baino hezkuntza hobea eta bizimodu seguruagoa izatea nahi luke. Iraken jaio eta hazi zen Abeer, Golkoko Gerraren garaian. AEBko tropek Irak nola inbaditu zuten bertatik bertara ikusi zuen, eta azken 14 urteotako Gazaren aurkako hiru gerrateak bizi izan ditu. *«Gurasoak garen aldetik, saiatzen gara gure seme-alabak prestatzen Palestinako biztanleok egunero jasaten dugun indarkeria- eta beldur-giroari aurre egin diezaioten».*

Batez ere alabaz arduratzen da Abeer, emakume kementsu eta borrokalari bat hazi behar duela uste du eta. Amak marrazten dituen ballet-dantzariak txundituta daukate alaba, zeina ballet-eskolak hartzen hasia

baita. Seme-alabei dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzen du Abeerrek. *«Etxean arrebaren betekizun berak izan behar dituztela esaten diet semeei, eta irizpide horren arabera hezten ditut».* Ez du onartzen etxean lan guztia emakumeek egin behar dutenik eta gizonak, berriz, eserita geratu eta aginduak eman. Alabaren nortasunean garbi nabari dira ikuspegi horren emaitzak. Alaba independentea dela dio Abeerrek, bere eskubideak aldarrikatzen dituela eta gogor egiten duela lan helburuak lortzeko.

Gazako emakumeen eta nesken sufrimendua eta borroka mundu guztiak ikustea nahi du Abeerrek. Bestalde, atzerrira joan nahi luke, bere esperientzia kulturala eta artistikoa areagotzera.



© UNRWA





© Michael Bhar Argazkia

**DIMA
KURRAZ**

Egilea: Haneen Harara

Etxeko teilatuan egiten du dantza Dimak, Palestinako kanta herrikoien erritmoari jarraikiz, eta hegaka balebil bezala sentitzen da, hegazti baten antzera. Gauza bera egiten du Anqak ere. Ausazko mugimendu libreak eginez, hainbat egoera, arazo eta kontraesan adierazten ditu dantzaren bidez: maitasuna eta gerra, bakea eta borroka, itxaropena eta oinazea, erresistentzia eta babesik eza, nola izan eta nola ez izan...

Hogei urte ditu Dima errefuxiatu palestinarrak, eta Gazatik ipar-ekialdera 41 kilometrorra dagoen Al-Masmiyya lurralde okupatukoa da. Ingelesaren Itzulpena eta Interpretazioa ikasten du, eta dantza garaikidea du grina nagusia. YouTubeko zenbait kanalen bidez hasi zen ezagutzen dantza-estilo hori, zeina ez baita batere ohikoa kostaldeko ingurune horretan.

«YouTube bideo asko ikusi ondoren, kultura eta zientzia sustatzen dituen Said al-Mishal Kultur Etxera joan nintzen. Harrituta utzi ninduen zera jakiteak, dantza garaikidearen berririk ez zutela Zentroan; hori zela eta, Dabke ikastaroetarako eman nuen izena. Dantza modernoaren antz pixka bat duen Palestinako dantza tradizional bat da Dabkea». Palestinako nekazarien herentzia kulturala da Dabkea, haien mugimenduetan oinarritua; poza eta bake bidezko erresistentzia adierazten ditu.

Zoritxarrez, Israelgo aireko armadaren erasoek suntsitu egin zuten Said al-Mishal zentroa, hiriko ekitaldi kultural eta artistikoen egoitza. *«Israelarren erasoak Said al-Mishal zentroa suntsitu ondoren, Gazako YMCAra jo nuen, Gazteen Kristau Elkartera. Han, dantza modernoa ezagutzera ematen hasi ginen, eta Palestinako dantza tradizio-*

nalean ere txertatu genuen; Dabkean, alegia. Hip Hop Dabkea deitzen diogu».

Neska gaztea izaki, oztopo askori egin behar izan die aurre Dimak bere grina garatu eta dantza modernoari ekiteko; besteak beste, Palestinako gizartearen pentsaera kontserbadoreari. Baina ez zuen amore eman, eta dantza egiten jarraitu zuen, mespretxatu zutenei kasurik egin gabe. *«Dantza garaikideko ikuskizun asko aurkeztu nituen eta, pixkanaka, hasi zen Gazako jendea ideia hura onartzen. Denboraren poderioz, ezaguna egin zen dantza garaikidea, mundu osoan azaltzen baitu Palestinako herriaren egoera».*

"Herriaren kezka sozialetako asko adierazteko aukera ematen dio dantzak".

Dimaren ustez, bere herriaren kezka sozialetako asko adierazteko aukera ematen dio dantzak, bai eta haiek eragiten dituzten faktore sozioekonomikoak eta kulturalak plazaratzeko ere. Dantza tradizionalen historia eta memoria berreskuratzeko proiektu bat ari da bultzatzen elkartea zenbait herri eta hiritan, aitona-amona palestinarren artxibategi historikoa bilduz. 1948tik jasotako zenbait dantza-mugimendu berreskuratu ditu proiektuak, eta bakoitzaren ezaugarriak gorde; besteak beste, herriarekiko maitasuna eta dantzaren bidez adierazteko modua. Gaurdaino iraun dute dantza horietatik gehienek.

Dimarentzat, aurkikuntza garrantzitsua izan da dantza garaikidea, barruan dau-

kana kanporatzeko aukera ematen baitio, eta Palestinako hainbat herritarrek amesten duten askatasuna adieraztekoa. *«Nire ikasketa akademikoekin bateragarria da dantzarekiko grina. Saiatzun naiz Zisjordanian eta gizarte arabiarretan proiektuak eta ikuskizunak lortzen. Kultura arabiarrek eta palestinarrak trukatzeko modu bat da, baita Mendebaldeko herrialdeekin ere. Mundu osoko agertokietan Palestinaren ordezkari izatea, horra nire ametsa»*. Dantza modernoaren estiloa librea dela dio Dimak dantzari-taldea erosoago, aiseago, malguago, irekiago, erakargarriago eta eraginkorrerago jardun dadin. Dantza pentsatzen eta sentitzen duena adierazteko beste tresna bat da, eta Palestinako herriaren askatasun-nahia islatzen du.

Kapital handia du Palestinak —bai gizarteari, bai arteari eta kulturari dagokienez— eta dantzari guztiak biltzeko gai diren

lekuak behar ditu, komunitate artistikoko hainbat eta hainbat talentuk non plazaratua izan dezaten. Islamic Relief Worlwide erakundeko nazioarteko sustapen-arduradun Shahin Ashrafek dioskunez, Gazako herritarren herena baino gehiago gazteak dira, baina apenas daukaten botererik eta eskubiderik, eta etsita daude. Izan ere, ondorio ezin okerragoak eragiten dituzte okupazioak eta blokeoak gazteen eguneroko bizimoduan.

Gazara sartzeko eta handik irteteko aukerarik ez dute, izugarrizko murrizketak ezartzen zaizkie ondasunen eta salgaien inportazio-esportazioari, eta etengabeko oztupoak jartzen zaizkio gazteen garapen pertsonal eta kolektiboari, prestakuntza profesional eta trebakuntza-maila ona duten arren. 2021ean, %47 zen langabezia-tasa Gazan —mundu osoko altuenetakoa, Palestinako Estatistika Bulego Zen-



© Michael Bhar Arqash



© Michael Bhar Argakia

tralaren arabera⁵—, eta batez ere gazteei eta emakumeei eragiten die. Gazako gazte lizentziatuen % 74 langabezia daude; emakumeen artean, % 80tik gorakoa da portzentajea.

Dantzarekiko duen grinari esker eusten die Dimak itxaropenari eta ilusioari. Grina horrek ematen dio indarra lanean jarraitzeko, dantzari ospetsu bihurtzeko eta bere herraren kultura zein tradizioak mundu osora zabaltzeko.

Maiz hitz egiten dute hedabideek Gazari buruz, baina ezkutuan geratzen dira hango herritarrak eta haien sentipenak, politikak eta indarkeriak berenganatzen baitute arreta guztia. Palestinatik kanpoko jendeak ez du ikusten eta ez du ulertzen hango herritarren bizimodua —: Israelen okupazioa eta blokeoa, borrokak...—, ez daki ezer palestinarren egoerari eta ametsei buruz... Horregatik, lagungarri zaizkigu Dimaren eta beste zenbaiten kontakizunak Palestinako errefuxiatuen egoera ulertzeko, bestelako etorkizun bat eraiki daitekeela sinesteko.

⁵ PCBS 2020 https://www.pCBS.gov.ps/Portals/_Rainbow/Documents/unemployment-2020-02e.html



© Ahmad Abu Knai, Argazkia

**SHIREEN
HASANNEN**

Egilea: Amjad Shabat

Hogeita bost urte ditu Shireen Hasannen margolari gazatarrak, eta ingeniari-tza elektronikoa ikasten du. Bere iritzian, «*arkitekturak gehiago du bizitza-estilotik ikerketa-eremutik baino*». Arteak eta arkitekturak areagotu egin dute Hasannenen adierazkera. Bere iritzian, «*arkitekturaren funtsezko osagaia da artea*».

Jendearen ahotsa izan nahi du Shireenek. «*Bizitzaren gogortasuna dela eta sentipenak adierazi ezin dituen jendeaz hitz egin nahi dut*». Bere artea Gazako herritarrei babesa eta elkartasuna adierazteko modu bat dela uste du. Sumindura- eta bakardade-ahotsez josiak daude Shireenen erretratuak, mezua hedatzen lagundu dezaten. «*Gazako herritarren sufrimendu bera pairatzen dut nik, eta hau da haien eta nire arteko alde bakarra: artearen bidez adieraz ditzaket nik sentimenduak. Jende gehiena ez da ausartzen bere sentimenduak adieraztera*».

Sufrimenduz eta tristezi-az beteta dago Gaza, baina Shireenen ustez, talentua ere gogotik dago.

Oztopo asko gainditu behar izaten ditu Shireenek arteari ekiteko. «*Zoritxarrez, jendeak ez dio ematen arteari merezi duen balioa*». Arazo asko ditu jendeak bere eguneroko bizitzan: pobrezia, langabezia, energia-urritasuna, ur-eskasia eta abar. Hori dela eta, arteak ez du lekuri- herritarren bizitzan. Emakume izatea ere oztopo du Shireenek, bai sormen-lanerako bai bidaiatzeko.

«*Muga asko daude jendaurrean artegintzari ekiteko. Artistoi ez digute uzten emakumeak marrazten baldin eta hijabik ez badaramate, ez eta eskulturetan emetasuna adierazten ere*». Uste du, bestalde, Gazatik kanpo ere

oztopo ugari dagoela artista izateko, mundu osoan jartzen dizkietela mugak.

Materialik eta kolorerik eza da Shireenen oztopo nagusia. Azken proiektuan —*Qurban*—, raisen izeneko produktu garden bat behar zuen eskultura-modeloak egiteko, «*baina Israelek ez du baimenik ematen Gazara material hori sartzeko*». Baina, etsi beharrean, ikertzeari ekin zion Shireenek, material hori kimikaren bidez nola egin asmatu zuen arte; ondoren, artisau-erara hasi zen egiten, etxeko sukaldean.

"Arteak salbatu ninduen, eta horregatik erabaki nuen beste batzuekin partekatzea, haiek ere salbatzen laguntzeko".

Hasieran, bere inguruan ez zuen laguntzarik aurkitzen Shireenek artegintzan jarduteko: «*Lagunek eta senideek zera esaten zidaten, ingeniaria izateko ikasi nuela ingeniari-tza bost urtez, ez zirriborroak marrazteko*».

Duela bost urte, ama hil zitzaion Shireeni minbizia zela medio, eta automatikoki bere bi anaia txiki- en ama bihurtu zen. Bost urte zituen bata- k, eta sei hilabete besteak.

Gogoan du familiaren etxeko bere gela- txoan eman zituela artegintzako lehen urratsak, nolabait adierazi beharra baitzeu- kan amaren galerak eragindako triste- zia eta hain gazterik halako erantzukizuna izatearen kezka. «*Arteak salbatu ninduen, eta horregatik erabaki nuen beste batzuekin partekatzea, haiek ere salbatzen laguntzeko*».

Gaza bera eta hango jendearen istorioak eta sufrimendua ditu inspirazio-iturri nagusiak. *«Beti pentsatu izan dut bizitzan aurrera egiteko jendeak duen gaitasunean, haien sentimenduetan, egoera txarrei aurre egiteko moduak asmatzeko ahalmenean...».*

Harro dago Shireen gizarte horretako partaide izateaz. Amore emateko zorian egon da askotan, baina ikusirik nola saiatzen den jendea okupazioaren eta blokeoaren oztopoei aurre egiten, are gogorrago lan egiteko gooa sentitzen du.

Palestinako gizarteko emakumeen arazoak dira bere lanaren ardatza. Proiektuetako

batean jazarpena, genero-indarkeria eta aukerarik eza jorratzen ditu. *«Baliteke ni ez gauza izatea arazo horiek konpontzeko, baina nire erantzukizuna da haiek plazaratzea».* Emakumeen gaineko gaiak lantzearen arrazoa, berriz, hau du: belaunaldi berrietako jendea kontzientziatzea, emakumeen aurkako indarkeriari eta jazarpenari aurre egin diezaioten.

Bere lantegi propioa eduki nahi luke Shireenek, jendearen istorioak eta esperientziak marrazteko. *«Oso leku aberatsa da Gaza istorioei dagokienez. Ahotsik gabekoen ahotsa izan nahi dut».*



© Ahmad Abu Kmail, Argazia



ONDORIOAK

Palestinako 16 emakumeren istorioak ageri dira argitalpen honetan, haien ametsak, asmoak eta borrokak. Denek egin behar diete aurre blokeoak eta okupazioak eragiten dituzten oztopoei eta, gainera, sistema patriarkalak berekin egunero dakartzan eragozpen guztiei. Izan ere, gizonen agintea da nagusi antolakuntza-erakunde guztietan eta sexu- zein genero-harremantetan; hori dela eta, oso mugatua da emakumeen eskubide- eta askatasun-eremua eta haien ahalmen ekonomikoa, politikoa eta soziala. Ez da harritzekoa, beraz, zaila izatea emakume palestinarrek ekonomian, politikan eta gizartean parte hartzea, eta oztopo ugari aurkitzea garapen pertsonal eta profesionalerako. Halaxe adierazi digute argitalpen honetako 16 emakumeek.

Haien lekukotasunei esker identifikatu eta izendatu ditugu beren eguneroko bizi-moduan jasaten dituzten indarkerietako batzuk, betiere okupazioa eta gatazka testuinguru direla: genero-indarkeria, bizibiderik eza, herentziarik jasotzeko eskubiderik eza, ura eta lurra eskuratzeko zailtasun handiak, eta hezkuntzarako oztopoak.

Genero-rol tradizionalak irmoki daude itsatsita Palestinako gizartean; hori dela eta, haiei aurre egiten dieten emakumeek aurka izaten dituzte euren familiak eta inguru-

ko jendea, eta arrisku asko jasaten ditu bai haien osotasun fisikoak bai osasun mentalak. Elkarrizketatuko emakume ia denek azaldu digute eragozpen ugari izan zutela ibilbide profesionalari ekiteko. Bayan Sawalnak, adibidez, hau kontatu digu: bere inguruko jendeak ez duela onartzen emakumeak argazkilari aritzea. Abeer Jibrilek, Dima Kurrazek eta Shireen Hasannenek, berriz, emakumeek artista izateko dituzten zailtasunez hitz egin digute. Emakumeei omen dagozkien rolak aintzat ez hartzeak inguruko gizartearekiko haustura eragiten du sarritan, eta egoera traumatikoak eragiten (bakardadea, arbuioa...).

Gizonei, berriz, frustrazioa, amorrua eta oldarkortasuna eragiten die rol tradizionalen aldaketak, kontrola edo prestigioa galtzen dutela iruditzen baitzaie, edo beren estatusa zailtzean jartzen dela. Eta emakumeek pairatzen dute gizonen ezinegon hori, eta are gehiago elikatzen da haien aurkako indarkeria-zikloa. Ez dezagun ahortzi, bestalde, emakumeek egiten dituztela —ia oso rik— etxeko lanak eta zaintzakoak.

Testuinguru horretan, banantzea erabakitzen dutenek zenbait indarkeria-mota jasaten dituzte (psikologikoa zein soziala), Gazako zerrendan abokatua den Monaleeza Ismail Yassin Al-Masrik azaldu digunez.

Bestalde, lege-prozeduren berri apenas dutenez, egoera are zaurgarriagoan gertatzen dira emakume horiek.

Lehenago ere azaldu dugunez, ez dira isolatuak izaten Palestinako emakumeek pairatzen dituzten eskubide-urraketak: berez ere txarra den egoera are okerragoa bilakatzen dute okupazioak eta blokeoak, eta arras mugatzen emakumeen garapen pertsonal eta profesionalerako aukerak. Bizi diren kanpamentutik eskolarako bidean zer arrisku jasaten dituzten azaldu digu Zisjordanian bizi den ikasle batek, Fátima Katash errefuxiatuak. Kanpamentu horretan eta beste askotan, nesken segurtasuna dute kezka-iturri nagusietakoa familiek, sarritan izaten baitira gatazkak eta indarkeria-ekintzak israeldarren erasoak direla eta. Eragin nabarmena du egoera horrek haurren ongizate emozionalean eta psikosozialean, eta familia batzuek zera erabaki dute: alabak eskolara ez bidaltzea.

Oztopoak oztopo, estrategia ugari baliatzen dituzte emakume palestinarrek aurrrera egiteko: etxeko ekonomia zorrotz administratzea, lan-metodoak asmatzea, ahalduzko-prozesuak eta diru-iturriak sortzeko ekimenak bultzatzea eta abar. Horren adibide bikaina dugu Sulafa brodatu-proiektua, Sabha Alnabaheinek azal-

du diguna. Lan hori du diru-iturri bakarra Sabharen familiak.

Elkartasuna eta lankidetzaren etengabe sustatuz jarduten dira emakumeak eta, kementaren eta jakintzaren sinbolo bihurturik, funtsezko eginkizuna dute Palestinako herriaren historia, borroka eta gorabeheren transmisioan. Horra, esate baterako, Menwa Rayanen eta Naima Nael Sharakahren lekukotzak, zeinek bizirik eusten baitiote Nakbaren eta gaurdaino luzatu diren haren ondorioen oroitzapenari.

Deigarriak dira, halaber, Shatha Allazzen eta Wafaa Khaterren istorioak. Profesionalak dira aipatutako bi emakumeak, eta biek erabaki zuten —euren bizitzako unerentzatean— atzerrian egiten ari ziren ikasketak zientifikoak utzi eta sorterrira itzultzea, Palestinako emakumeen bizimodua hobetzeko aldaketak bultzatzen laguntzera.

Zaurgarritasun-giro horretan, ezin aipatu gabe utzi ingurumenaren hondamenak Palestinako nesken eta emakumeen bizitzan duen zuzeneko eragina. Emakumeak dira lehenbizi ohartzaren direnak krisi klimatikoaren ondorioez, familia eta komunitatea mantentzearen arduradun izaki mehatxupean ikusten baitituzte euren bizibideak, eta gizonek baino gehiago ja-

saten kutsadura, gaixotasunak, elikadura-
-ziurgabetasuna eta abar.

Horregatik, funtsezkoa da emakumeak
ahalduntzea ingurumen-jasangarritasun-
neko konponbideetan parte har dezaten,
erabakigarriak baitira zenbait arlotarako
(uraren kudeaketa eta kontsumoa, hon-
dakin solidoen gestioa...). Hala gogoratu
digu baliabide hidrikoetan espezialista
den Abeer Al-Batma ingeniariak. Gogoan
hartzekoa da, bestalde, Aidako errefuxia-
tu-kanpamentuko ingurumena eta bizi-ka-
litatea hobetzeko Shatah Alazzezh emaku-
meekin egiten ari den lana.

Zaila da ingurumena kudeatzea Palestina-
ko lurralde okupatuetan, egoera politikoak
eta okupazioak/blokeoak ezartzen dituz-
ten mugak direla medio: noranahi joateko
eragozpenak, ura eta lurra eskuratzeko zail-
tasunak, materialak eta teknologia berriak
inportatzeko oztopoak... Fatheya Saleh-
ren lekukotzak argi erakutsi digu zenbate-
ko zailtasunak dituzten Gazako emakume
nekazariek ura eta lurra eskuratzeko.

Bisan Al Mabhuhren eta Irada Zaneenen
istorioek, berriz, hau erakusten digute: in-
gurumenaren kudeaketarako konponbide
jasangarriak sortzeko ahalegina ez ezik,
zenbait emakumek okupazioaren/blo-

keoaren mugei aurre egiteko duten irudi-
men handia. Energia berriztagarrien arloko
ingeniaria da Bisan, eta eguzki-energiako
puntako proiektu bat jarri du martxan Ga-
zan, blokeoa dela eta bertan aurkitu ezin
diren materialen ordezkioak erabiliz. Iradak
ere irudimenaz baliatu behar izan du blo-
keoari iskin egin eta hidroponia-proiektu
bat martxan jartzeko. Izugarritzko garran-
tzia du hidroponiak Gazan, non kronikoa
baita ur-eskasia, baina ez da kontu erraza,
blokeoa eta elektrizitate-hornidura eskasa
direla medio.

Laburbilduz, Palestinako zenbait inguru,
adin, egoera sozioekonomiko, kokapen
geografiko eta estatusetako emakumeen
borrokak eta aurrera egiteko estrategiak
ezagutzeko aukera eman digute 16 kon-
takizun horiek. Oso garrantzitsua da, izan
ere, ahots horiek berreskuratzea eta leku-
kotasun horiek plazaratzea, berez aberas-
garri izateaz gain. Garrantzitsua da, zeren
eta ahots horiek honako hau gogorarazten
baitigute: genero-ikuspegia eta irizpide
feminista beti hartu behar direla aintzat
aurrean ditugun egoerei ekiteko, bai his-
torikoei, bai gaur egungoei. Lagungarri
zaizkigu emakume horien ahotsak honeta-
rako: gure gizartean hain hedatua dagoen
ikuspegi androzentriko eta estereotipoz
beteari beste ikuskera bat kontrajartzeko.







erkidego batzordea
unrwa
euskadi



SARAPENETIKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PALESTINAKO GENEALOGIA FEMINISTA II: “EREDU DIREN EMAKUMEAK”